

AURKIBIDEA

Maiatzaren 31n, HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA.....	4
Ekainaren 7an, KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK.....	11
Ekainaren 14an, URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA	18
Ekainaren 21ean, URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA	25
Ekainaren 28an, URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA.....	32
Uztailaren 5ean, URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA.....	39
Uztailaren 12an, URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA.....	46
Uztailaren 19an, URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA.....	53
Uztailaren 25ean, SANTIAGO APOSTOLUA	60
Uztailaren 26an, URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA	69
Uztailaren 31an, LOIOLAKO SAN IGNAZIO	76

Pentekoste ondorengo Igandea

Maiatzaren 31n

HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA

Kontenplalarien aldeko Jardunaldia

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta Jainko Aitaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristia ospakizuna beti da Aitari egindako gorespena, bere Seme Jesu Kristoren bitartez, Espiritu Santuaren batasunean.

Gaur, Hirutasun Santuaren festaburuan, agertu den Jainkoaren misterioa aitortzen dugu: Jainkoa, pertsonen elkarte bat da.

Otoitzari emanak bizi direnak, lekaide eta lekaime kontenplalariak gogoratuko ditugu gaur. goiburu honekin: **Kontenplaziozko biziera: Norengatik bizi zara?** Otoitz egingo dugu kontenplalarien alde, Jainkoari eskerrak emanez, Eukaristia santu honetan.

Damu-otoitza

Eska dezagun apaltasunez Jainkoaren barkamena eta errukia:

- Jesus Jauna, zeruko Aita ezagutzera **eman** diguzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Espiritu Santua gure bihotz barrenean **jarri** diguzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin elkar maitasunean **an** bizi zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko Aita, egiaren Hitza den zeure Semea
 eta Espiritu santutzailea bidali dituzu mundura
 gizon-emakumeei zeure misterio miragarria agertzeko;
 egizu, egiazko sinesmena aitortuz,
 ezagut dezagula betiereko Hirutasunaren aintza
 eta gurtu dezagula Batasun ahalguztiduna.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gure fedearen muina den misterioa ospatzen ari gara: Hirutasun Santua. Irakurgaiek bakarra eta hirukoitza den Jainkoa agertzen digute, maitasuna, errukia eta batasuna dena, eta gu salbatzeko historian agertu dena.

Lehenengo irakurgaia (*Ir 34, 4b-6. 8-9*)

Irteera liburutik


Egun haietan, goizean goiz, bi harlauzak harturik, Sinai mendira igo zen Moises, Jaunak agindu bezala. Orduan, Jainko Jauna laino batean jaitsi eta Moisesekin gelditu zen, eta honek Jaunaren izenari dei egin zion. Moisesen aurretik igaro zen Jauna, hau hots eginez: «Jauna, Jauna, Jainko bihozbera eta errukitsua, haserregaitza eta onginahiz eta leialtasunez betea!»

Berehala, lurreraino ahuspeztu zen Moises eta esan zuen: «Jauna, gogoko banauzu, zatoz, arren, gurekin! Herri hau burugogorra da, bai; baina barkatu Zuk gure gaiztakeriak eta bekatuak, eta har gaitzazu zeure ondareztat».

Erantzun-salmoa (*Sal 8, 4-5. 6-7. 8-9*)



Bedeinkatu-a Zu, Jau-na, gure arbaso-en Jain-ko-a;



R/. Aintza ta gorespeZuri gizal di - e-tan.

∞. Bedeinkata Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa:

R/. Aintza eta gorespen Zuri gizaldietan!

∞. Bedeinkatua zure izen santua eta ospetsua: R/.

∞. Bedeinkatua Zu zeure tenplu santu eta ospetsuan: R/.

∞. Bedeinkatua Zu, errege-tronuan eserria zaudena: R/.

∞. Bedeinkatua Zu, kerubinen gainean eseririk,
leizeak arakatzen dituzuna: R/.

∞. Bedeinkatua Zu zerru-sabaian: R/.

Bigarren irakurgaia (*2 Ko 13, 11-13*)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Poztu zaitetzte, saiatu on-onak izaten eta eman elkarri adore; izan iritzi bereko eta bizi bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jainkoa zuekin izango da.

Agurtu ezazue elkar besarkada santuaz. Fededun guztiek agurtzen zaituztete. Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, Jainkoaren maitasuna eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin guztiokin.

Aleluia (Ik. Ap 1, 8)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Aintza Aitari, eta Semeari,
eta Espiritu Santuari,
baden, eta bazen, eta etortzekoa den Jainkoari! ∇.

Ebanjelioa (Jn 16, 12-15)

Homiliarako argibideak

Bere Semea eman zigun

Hainbeste gerra eta bake behar dagoen gure munduan, komeni da gogoraraztea gizateria osoa familia bakar bat dela, Jainkoaren seme-alaben familia. Gure Jainkoa ez da izaki bakartia, indibidualismoaren sortzailea, elkar maite duten pertsonen hirutasun bat baizik. Maitasunak komunikatzeko joera du eta horregatik Jainko-familia sorkuntzara irekitzen da eta, bereziki, gizateriara. Zentzugabea da gizakiek elkar hiltzea. Hirutasunaren misterioa Jainkoaren maitasunaren misterioa da, inguratzen eta laguntzen gaituena, salbazioaren historian zehar agertzen eta ematen zaiguna, gaur egun ere jarraitzen duena.

Jainkoak pixkanaka bere intimitatea erakutsi du eta Moisesek eta beste hainbatek Jainkoaren adiskidetasun hori espermentatu ahal izan zuten, Aliantzaren Jainko bezala agertzen dena, Jainkoak bere herriarekiko etxekotasuna sortzen duena (*Ir 34, 4b-6. 8-9*). Jainko errukiorra da, amaren erraiak dituena, aita eta ama aldi berean. San Ireneok esango du Jainkoak munduan Hitzaren eta Espirituaren bidez jarduten duela, Jainkoaren bi eskuen bidez, alegia.

Aitak bidalitako Semea izan da Hirutasunaren misterioa, Jainkoaren maitasunaren misterioa argitu diguna. Jainkoak ez du bidali bere Semea mundura kondenatzeko, salbatzeko baizik (*Jn 3, 16-18*). Jainkoak bere Espiritua bidali du gure bihotzetara, eta berarekin bere maitasuna, halako moldez non Jainkoaren bizitzan bertan parte har dezakegun. Errealitate honetatik Itun Zaharra berrirakur dezakegu eta Jainkoaren Jakinduria eta Espiritua bezalako irudiak aurkitu, Semea eta Espiritua iragartzen dituztenak. Jainkoak pixkanaka bere intimitatea erakutsi du, bere herria errebelazio hori hartzeko pazientziaz prestatu ondoren.

Jainkoa ez da bere baitan itxitako izaki isolatua. Beren artean maitasun harremana duten pertsonen komunitatea da. Pertsona irekitasuna da, harremana da, eta harremanean soilik eratzen eta gauzatzen da. Aita Semeari ematen zaio erabat. Semeak hartzen du dohain hori eta Aitari itzultzen dio. Eta eman eta jasotze horretan eratzen da Espiritua Aita eta Semearen arteko maitasun-lokarri gisa.

Hirutasunaren misterioak argitzen du gutariko bakoitza garen misterioa, Hirutasunaren irudira eta antzera sortuak. Gizakia ere ez da izaki isolatua, bere baitan itxia, baizik eta besteekiko irekiera bat gara. Pertsona gisa eratzen eta gauzatzen gara, hain zuzen ere besteekiko harremanean, batez ere maitasuna den eta ematean eta jasotzean datzan harreman pribilegiatu horretan.

Denok dugu bizia eta maitasuna emateko gaitasuna, besteen ongia bilatzeko geure baitatik irteteko gaitasuna, Aitaren irudira eginak gaudelako. Baina, era berean, gai gara, Semea bezala, besteen dohaina, haien intimitatea, hartzeko. Eta geure bizitza, geure fedea eta geure maitasuna konpartitze horretan erutzen da giza eta eliz komunitatea, Jainkoaren benetako familia. Bertan, Espirituak misioa animatzen du, gu geure baitan Eliza bezala itxita gera ez gaitezen, baizik eta beti Eliza misiolari irekia izan dadin, mundura begira dagoena, salbatzeko, Jainkoaren Erreinu bihurtzeko. Horixe bizi nahi dugu Eukaristia honetan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz Aita maitagarri dugun Jainkoari, Jesu Kristogan bere maitasuna agertu digunari eta Espirituaz eragiten digunari.

- Jainko Aita Sortzaileak mundua bere betera eraman dezan, eta hitz emandako zero-lur berriak sorraraz ditzan, gizadi osoak egiazko zoriona aurkitu eta Bere aurpegi aintzatsua goza ahal izateko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gizon eginik Elizarekin bat egin zen Jainkoaren Seme Bakarrak, eman diezaiola Elizari berari emazte bezala erantzuteko Bere maitasun betea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Mundua bere dohainez aberasten duen Jaunaren Espiritua behartsuentzat aita, nahigabetuentzat atsedean, gaixoentzat osasun eta erorientzat indar gerta dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hirutan bakarra den Jainkoaren misterioa ezagutzen dugunok, Haren berri eman diezaiogun ezagutzen ez dutenei, pozez ezagutu dezaten Aita, Seme eta Espiritu agertu zaigun Jainkoa. Eska diezaiogun Jaunari.

Leiala eta errukiorra zaren Aita, Zure Seme bakarra bidali zenigun mundura, eta Zure Espiritua guretzat bizi-oinarri, batasun-eragile eta maitasun-iturri izatea nahi izan zenuen; entzun gure otoitzak, sendotu gure fedea eta eragin guran bakea eta esperantza, Elizaren batasunean Zure izen santu eta aintzagarria gores dezagun beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
zure izen santuari dei egiten diogu:
egin itzazu santu, zeure ahalmenaz,
aurkezten dizkizugun dohain hauek,
eta horien bidez bihur gaitzazu guztiok Zeuretzat
betiko opari atsegingarri.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, betiereko Hirutasun Santua
eta haren Batasun hautsezina aitortu dugu;
egizu, hartu dugun sakramentu honetan
aurki dezagula gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hirutasun Santuaren ondorengo Igandea
Ekainaren 7an
KRISTOREN GORPUTZ-ODOL SANTUAK

Caritasen Jardunaldi berezia

Agurra

Jesu Kristoren grazia eta bakea izan bitez zuekin

Sarrerako oharpena

Kristoren Gorputz-Odol santuen festaburua dugu gaur, Jaunaren agindua gogoratu: «Egizue hau nire oroigarri».

Jaunarengan pozten gara, bere mahaikide egin gaituelako eta pozik bildu gaituelako gaur ere, bere gorputza jatera eta gurtzera.

Mahai honetan parte hartzeak behartsuak gogoratzea berekin du ezinbestez, horixe egingo dugu gure otoitzean eta diru-bilketan **Caritasen** beharrak gogoan izanez.

Aita Santuaren bisitaldi apostolikoa gogoan dugu (gaur Madrilen da), «begirada altxatuz» eta beraren alde eta batasunaren alde otoitzean. Ospa dezagun pozik otordu santua, Jesu Kristoren oroigarria.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen

—Jesus Jauna, zerutik jaitsi zen **O**gia zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizia ematen duen **O**gia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure biziaz janar**i**zen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko,
sakramentu harrigarri honetan
zeure heriotzaren oroigarria utzi diguzu;
egizu, gorets dezagula fede biziz
zure Gorputz Odolen misterioa,
geuregan zure erospenaren ondorenak suma ditzagun beti.
Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak Eukaristiaren misterioan murgiltzen gaitu. Antzina bere herria basamortuan janaritu zuen Jainkoak zaintzen gaitu gu ere. Bakarra da Kristoren gorputza, guretzat betiko bizirako egiazko janaritzat emana.

Lehenengo irakurgaia (*Dt 2-3. 14b-16a*)

Deuteronomioa liburutik

Moises honela mintzatu zitzaion Israel herriari: «Gogoratu Jaunak zure Jainkoak basamortuan berrogei urte hauetan eginarazi dizun bidea: atsekabetu egin zaitu eta probatu, zure barne-asmoak ezagutzeko eta zuk beraren aginduak beteko zenituen ala ez jakiteko.

Behar gorrian jarri zintuen, gosea pasarazi eta mana eman zizun jaten, ez zuk eta ez zure gurasoek ezagutzen ez zenuten janaria, zuri

jakinarazteko gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik eta Jaunaren ahotik ateratzen den hitz gutitik bizi dela.

Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza--lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena; berak atera du sukarritik ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana».

Erantzun-salmoa (Sal 147, 12-13. 14-15. 19-20)



- ✠. Jerusalem, ospa ezzu Jauna,
Sion, goretsi zeure **Jain**koa,
zure ateen sarrailak indartu **bait**itu
eta seme-alabak zure baitan **bedeink**atu. ✠.
- ✠. Zure mugetan bakea **ezarri** du,
garirik onenaz **ase** zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere **mezua**,
eta haren hitza bizkor eta **arin** doa. ✠.
- ✠. Bere hitza iragarri dio Jakoben **herri**ari,
bere erabakiak eta aginduak **Isra**eli.
Beste herriei ez die horrelakor**rik** egin,
bere erabakirik ez die jakin**ar**azi. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 16-17)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jainkoa bedeinkatuz hartzen dugun esker onezko kalizak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren odolean? Eta zatitzen dugun ogiak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren gorputzean? Ogia bat denez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu denok.

Aleluia (Jn 6, 51)



✠. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia, **di**o Jaunak;
ogi honetatik jaten duena betiko **bi**ziko da. ✠.

Ebanjelioa (Jn 6, 51-58)

Homiliarako argibideak

Ogi beretik jatea

Hainbat krisialdi eta gaixotasunek gure zaurgarritasunaz jabetu arazi izan gaitu. Bizitzaren luzapen mugagabeko zientzia fikzioaren ilusioen aurrean, hilkor aurkitu gara. Gaur egun, zalantzarik gabe, zientziak izugarri luzatu du pertsonen bizitza, baina ez da beti lortu denok nahi dugun bizi-kalitatea. Kalitate hori ezin da mugatu bizitza erosoago bat edukitzera, gehiago kontsumitu ahal izateko, baizik eta bizitza osoago bat izan behar du, egiten dugun guztiak zentzu handiagoa izan behar du, gure benetako izatearekin bat datorrelako, eta ez artifzialki sortutako beharrekin soilik.

Israel herria ikusten dugu, arazorik gabe bizi denean, ia ahaztu egiten duela nondik datorren eta nora doan. Jainkoak oroimena berreskuratzeko esaten dio: gogora dezala basamortuan ibili zeneko aldia, Jainkoak nola zaindu zuen eta jateko eman zion (*Dt 8,2-3.14b-16*). Ez du ahaztu behar, gizakia ez dela bizi ogiz bakarrik, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guztitik baizik. Gorputzeko goseaz gain, badira ase beharreko beste baldintzak ere. Jainkoarekin bat egin behar duen gizakiak, Jainkoaren Hitza eta Kristoren Gorputza behar ditu biderako janari.

Eguneroko elikagaiek ez digute amaigabeko bizitza ziurtatzen. Espirituaren janariak bakarrik eman diezaguke betiko bizia. Jesusek janari hori hitz eman zigun eta janari hori Bera zela aitortu zuen. Zapaldua, zigortua eta heriotzaraino zemaitua izan zenak, bere bizia eman zuen askatasunez, besteek bizia izan dezaten. Eta eskaintza hori, Azken Afarian eratu zuen Eukaristian aurreratu zuen. Bera da gure janari; Beraren bizitza eta hitza ditugu janari. Berarekin bat egiten gaitu guk ere Berak duen bizi bera izan dezagun: Aitagandik jaso duen bizia, betirako irauten duena (*Jn 6, 51-58*).

Azken egunean piztuko garela hitz eman digu Jesusek. Azken egun horren egia iritsi da dagoeneko Jesusen piztuerarekin, Bere bizitza presente da gugan eta fedean, itxaropenean eta maitasunean bizi dugu. Ez da betiko bizitza, baina bai haren aurrerapena eta hura biziko dugun promesaren ezaugarria, izango garena ikuskatzen dugu Jesusek egin digun eskaintza eskuzabalean.

Batasunaren sakramentua da Eukaristia. Janari dugun Kristorekin sakoneraino bat egitea. Eguneroko janaria hartzen dugunean, geureganatu egiten dugu janari horrek ematen diguna. Eukaristian, berriz, Kristo hartzean, guk egiten dugu bat Berarekin. Kristorekin bat egitean, Aitarekin bat egiten dugu, Jesusen misio bera agintzen digun Aitarekin... eta bere Bizitza gozatzen dugu.

Ogi beretik jaten dugunok, gorputz bera osatzen dugu, bizitza bera dugulako: Jesusen bizitza, Jainkoaren bizitza (1 Ko 10, 16-17). Familian sortzen da eta garatzen giza bizitza. Eukaristia ospatzeak eratu dezala Eliza Jainkoaren Familia moduan, bizi bera duten pertsonen elkarte, mahai berean janari bera jaten duten senideen elkarte.

Jainkoaren herriaren otoitza

Gizaki guztiak salbatzen dituen Pazkoa berrituko dugun mahai santua prestatu baino lehen, zuzen diezazkiogun Jainko Aitari gure otoitzak, entzungo gaituela uste osoz sinetsiz:

- Gotzainek eta apaizek bat egin dezatela Jaunarekin Eukaristian buru egiten dutenean, herri osoak ikus dezan horiengan, Bere izenean bildu dituen Kristoren irudi bizia.
- Kristau guztiok Eliza bakarraren batasunean Eukaristia ospatuko dugun eguna iritsi dadin, gizaki guztiak munduaren alde batetik besteraino Kristoren Gorputz-Odolen oparia eskain dezaten.
- Hilzorian dauden fededunek mundu hau bakean utz dezaten, eta Jaunaren promesak itxaronez eta Kristoren Gorputzak sendotuta zorianaren eta biziaren erreinura iritsi daitezten.
- Jaunak fedean eta maitasunean sendo gaitzan, espirituz eta egiaz gurtu dezagun Eukaristia Sakramentuan egiaz presente egiten den Kristo Jauna.

Jainko Jauna, Zeuk hitz emandakoekin laiala zara eta Zure herria maitasunez janaritzen duzu; entzun gure otoitzak eta piztu guran zaganako gogoia, zeu baitzara on guztien iturria; egizu, Kristoren Gorputz-Odol santuekin sendotuta aurrera egin dezagula zeruko mahairako bidean, han santu guztiakin batean bildu arte. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Emaiozu onez zeure Elizari, Jauna, batasunaren eta bakearen dohaina horien adierazgarri mistikoa baita ekarri dizugun eskaintza hau.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Egitera goazen diru-bilketa, Parrokiako Caritasen beharretan laguntzeko izango da. Horrela agerian jartzen dugu, Eukaristian Kristoren eskaintzarekin bat egitea, bizitzan behartsuei lagunduz gauzatzen dela.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Emaguzu, Jauna, orain hartu ditugun zure Gorputz eta Odol baliotsuez aurreratu diguzuna, zure jainkotasunaren betiereko gozotasunaz ase gaitezen. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Prozesioa egiten bada

Prozesioan eramango dugu orain Sakramentu santua, kantu eta gorapenen bidez, Eukaristiaren dagoen Kristori gure atxikimendua publikoki adieraziz; ikasleek jarraitzen eta laguntzen zioten moduan; berarengana gerturatzen zen hainbeste jendek bezala.

Eukaristiako ogia dugu bideko janari: Aitarenganako mundu honetako erromesaldian gure urratsak sendotzen dituen janaria. Basamortuko mana bezala, Eliasek jan zuen ogia bezala, Kristok ugaritu zituen ogi eta arrainak bezala... jarraitzen dion jendaldearen gosea asetzen duen janaria da: Bere Gorputza da.

Jarrai diezaiogun begirunez eta barne-pozez.

Ekainaren 14an
URTEAN ZEHARREKO XI. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Senideok, Jaunak bere etxera eta bere mahaira bildu gaitu. Atsedean egunak on egiten digu esker onez biltzeko, bere ontasuna eta maitasuna eskertuz. Bake-giroan eta otoitz lasaian Kristorekin bat eginez eta Igandea ospatuz.

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoaren hitza entzun eta gure salbamenaren oroigarria behar bezala ospatzeko, presta ditzagun gogo-bihotzak, Jaunaren errukia eskatuz.

—Jesus Jauna, gure **ba**kea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat **ogi** egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia **ema**ten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, Zugar itxaroten dutenen indarra,
entzun bihotz onez gure otoitza;
eta, Zu gabe, gizakiaren ahulezia ez baita ezertarako gai,
emaguzu beti zeure graziaren laguntza;
zure aginduak betez,
Zuretzat atsengingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak Ituna egiten du bere herriarekin eta pozik nahi gaitu, izan ere bere maitasunak mugari ez duelako. Jesusen guztienganako errukiak bere misioaren kide egin behar gaitu. Hitza entzuteak zabal dezala gure bihotza senide guztiengana.

Lehenengo irakurgaia (*Ir 19, 2-6a*)

Irteera liburutik

Egun haietan, israeldarrek Sinai basamortura iritsi eta han ipini zuten kanpalekua, mendiaren aurrez aurre.

Jainkoagana igo zen Moises. Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Hitz egin Jakob en ondorengoei, israeldarrei, eta adierazi hau: "Ikusi duzue zer egin die dan egiptoarrei, eta zuek nola eraman zaituztedan arrano-hegaletan eta Nigana ekarri. Orain, beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezi, nirea baita lur osoa; apaiz eta errege izango zaituztet eta Neuri sagaraturiko herri"».

Erantzun-salmoa (*Sal 100 [99], 2. 3. 5*)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
a be-re be-ti - ko e-rru - ki - a.



- ∞. Lurtar guztiok, egin irrintzi **Jau**nari,
zerbitza ezazue Jauna pozaren pozez,
sar zaitezte oihu alaiz haren **aur**rera. ∞.
- ∞. Jakizue Jauna dela **Jain**koa,
hark egin gaitu, harenak gara,
haren herri eta haren larreko **ar**talde. ∞.
- ∞. «Ona baita Jauna,
haren maitasuna bettikoa,
haren leialtasuna mendez menddekoa». ∞.

Bigarren irakurgaia (*Erm 5, 6-11*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea.

Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna.

Orain Jainkoak Kristoren odolaz zintzotzat hartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez!

Etsai ginelarik, Jainkoak berekin adiskidetu bagintuen bere Semearen heriotzari esker, zenbatez gehiago, behin adiskidetuz gero, ez ote gaitu salbatuko haren biziari esker! Are gehiago, harrotu ere egiten gara Jainkoaz Jesu Kristo gure Jaunari esker, honen bitartez Jainkoarekin adiskidetzea iritsia baitugu dagoeneko.

Aleluia (*Mk 1, 15*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



∇. Hurbil da Jainkoaren erregetza, dio Jaunak:
bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona. ☩.

Ebanjelioa (*Mt 9, 36–10, 8*)**Homiliarako argibideak***Uzta ugaria da*

Sekularren, erlijiosoen eta apaizen bokazioekiko kezka uzta ugari dagoela eta uzta biltzeko langile gutxi daudela jakitean sortzen da (*Mt 9, 36-10, 8*). Langileen eskasari erreparatzeko joera dugu, uztaren ugaritasunak sortzen duen esperantza handiari begiratu beharrean. Gure munduaren ikuskizunak, masa bakarti nekatuenak, bere bizitzari zentzurik aurkitu gabe, interpelatu egiten gaitu, Jesusen bihotza hunkitzen baitu. Jesusek gure alde eman zuen bere bizia, gure artean eta Jainkoarekin adiskidetzeko (*Erm 5, 6-11*).

Egia esan, denok ikusten ditugu beharrak, denok sentitzen dugu nolabaiteko errukia miserian dauden gure hainbeste anai-arrebei buruz eskaintzen dizkiguten irudien aurrean. Zerk eragiten du gure oinak ez mugitzea eta gure eskuak ez eragitea? Paralizatu gaituen eta jarduteko aukerarik ematen ez digun gure bizimodu erosoak. Jainkoak bakarrik mugi gaitzake eta ikusle izatetik misioan langile aktibo

izatera pasa. Sinodo ereako Eliza eraiki behar dugu, Jesusek hamabi apostoluei agindu zien lana jarraitzeko. Gure Elizaren muina da hori, eta denok hartzen dugu parte misioan. Misio handia da gure esku jarri dena.

Erreinuko Berri Ona iragartzea Jesusen grina izan zen, bere bizitza osoari eta bere heriotzari eta piztuerari zentzua eman ziona. Jainkoaren Erreinuua hurbil dagoela aldarrikatzea apostoluen eta Elizaren misioa ere bada. Eliza Ebanjelioa iragartzen duenean eraikitzen da. Ez da lehenengo Eliza eta gero Ebanjelioa iragartzea, baizik eta Eliza existitzen da Jesusen Ebanjelioa iragartzen duenean. Hori gabe, Eliza giza antolamendu soila besterik ez da. Jainkoaren Erreinuaren etorrera, Jainkoa justizia, bakea, askatasuna eta senidetasuna ezartzera datorrela dioen albistea bezala, gizaki orori dagokio. Bereziki pobreei zuzentzen zaie, giza duintasunari zentzua ematen dioten balio ebanjeliko horiek bizitzeko aukera eta eskubiderik gabe ikusten baitute.

Erreinuaren iragarpenarekin batera, Erreinuaren presentzia eta giza egoeren aldaketaren hasiera sinesgarri egiten duten zeinuak doaz. Elizak Ebanjelioa hitzekin eta obrekin iragarri behar du. Kristo Jesusengan salbamenaren Berri Onaren hitza garrantzitsua da arazoak hitzaren eta elkarrizketaren bidez konpondu nahi diren kultura batean, eta ez indarkeriaren bidez. Kultura honetan eroso sentitzen gara, Jesusek bere garaian hasitako bidea izan baitzen. Jesusek, zeinu txikien bidez, kultura mota berri bat sortzera gonbidatu zuen, gizakiaren eta giza elkartearen zerbitzura egongo dena.

Keinu txiki horiek Elizak jarraitu behar duen bidea adierazten dute, baina borondate oneko gizaki guztiekin partekatu eta egin daiteke. Gaixoak sendatu eta zaharrak zaintzen diren lekuan, Jainkoaren Erreinuua dago. Etsipenak jota dagoenak bizitzaren

zentzua aurkitzen duenean eta bizitzeko arrazoiak aurkitzen dituenean, Jainkoaren Erreinua dator. Gure gizarte modernoak atsekabetzen dituzten ustelkeriaren legenak garbitzen baditugu, Jainkoaren Erreinuaren etorrerarako pauso bat ematen ariko gara. Jendeak errazenerantz, egoismorantz eta besteen mespretxurantz, mugarik gabeko eduki eta boterearen irrikarantz, plazerezko bizitza errazturantz eramateko limurtzen dituen kultura modernoaren deabruak kanporatzen baditugu, orduan Jainkoaren Erreinua sartu ahal izango da. Gizadi berri bat sortuko da, kultura berri batekin eta maitasunaren zibilizazio batekin, non guztien eskubideak errespetatuak izango diren; maitasunaren zibilizazio bat non garrantzitsuena giza harremanak izango diren, eta ez ondasunak pilatzea. Eliza sinesgarria izango da: doan jaso duen guztia doan ematen duena.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egiogun otoitz gure begiekin ikusten ez duguna ere ezagutzen duen Jainkoari, Berak badaki-eta gizakion beharrak zein diren:

- Egin dezagun otoitz Elizaren alde: Jainkoak, gure Jaunak, sendo dezan, zatiketa guztiak urrun ditzan eta munduko kristau guztien otoitzak entzun ditzan.
- Egin dezagun otoitz gure herriko eta mundu guztiko agintarien alde: Jainkoak jakinduria eta indarra eman diezaien, bere ardurapean duten herria bakez eta justiziaz goberna dezaten.
- Egin dezagun otoitz etxetik urrun daudenen alde: Jaunak etxera pozik itzuli eta familiarekin elkartzeko dohaina eta zoriona eman diezaien.

—Egin dezagun otoitz hemen bilduak gaudenon alde eta ospakizunean buru egiten duenaren alde ere. Jaunak gure otoitza entzun dezan, eta gure eskariak Bere gogoko izan daitezten beti.

Jainko Jauna, apaiz-herri aukeratu gaituzu eta Zure erreinuaren ezaugarri izatea nahi izan duzu; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zurekin bat eginda bizitzea, bai gorapenean eta baita senideen zerbitzuan ere, gizaki guztien aurrean Ebanjelioaren hots egile eta testigu izan gaitezten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, orain eskaintzen dizkizugun dohainetan bizitza honetarako janaria eta bizi berriaren sakramentua ematen dizkiozu gizadiari bere izaera bikotzerako; egizu, gure gorputz-arimak ez daitezela inoiz ere laguntza horiek gabe gerta. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, hartu dugun sakramentuak fededunok Zurekin bat garela adierazten duen bezala, egin dezala Elizaren batasuna Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 21ean
URTEAN ZEHARREKO XII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Jauna gure artean da egiaz. Bere bizitza eta hitza deigarri dira guretzat. Kristori jarraitzeko gogoz, Haren Ebanjelioa onartzeko asmoz eta Ebanjelio horretan seme-alaben askatasun osoa aurkitzeko pozez bildu gara: askatzaile gerta dakigula Berri Ona.

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoaren hitza entzun eta gure salbamenaren oroigarria behar bezala ospatzeko, presta ditzagun gogo-bihotzak, Jaunaren errukia eskatuz.

—Jesus Jauna, Zu zara guretzat Aitarenganako bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara gure ilunpeak argitzen **dituen** egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara mundua berri**tzen** duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Izan dezagula beti, Jauna,
zure izenarekiko begirunea eta maitasuna,
ez baitituzu zeure eskutik behin ere uzten
zeure maitasunean sendo jarri dituzunak.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Norberak sinesten duenaren testigantzan leial irautea, pertsonalitate handiko biziera da. Eta zailtasun eta oztopo guztiez gain Berri onaren pozetan irautea are ederragoa. Ebanjelioak testigantzarako gonbidapena luzatzen digu: gertatuak gertatu Jesus gurekin dugu.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 20, 10-13*)

Jeremias Profetaren liburutik

Honela mintzo zen Jeremias: «Jendearen mehatxuak entzuten ditut, beldur-ikara nonahi: “Salatu, sala dezagun”. Adiskideak berak ere begira ditut, nik noiz huts egingo: “Ea engainatzen dugun, diote; orduan menderatuko dugu eta mendekua hartuko”.

Baina neurekin dut Jauna, gudari indartsu; ereriko dira nire etsaiak, ezin izango naute garaitu; haien asmoek porrot egingo dute, haien lotsa sekulakoa izango da, ahaztezina betiko. Jaun ahalguztiduna, zuzen aztertzen duzuna, gizakiaren buru-bihotzak ikusten dituzuna, zure esku utzi dut neure auzia: ikusiko ahal dut zure mendekua etsaien bizkar!

Kanta Jaunari, goretsazue Jauna, hark askatu baitu gaiztoen eskutik behartsuaren bizia».

Erantzun-salmoa (*Sal* 69 [68], 8-10. 14 eta 17. 33-35)

Ez e - gon, Jau - na, ni - gan - dik u - rrun; zu - re - a nau -
zu, za - toz - kit la - gun.

- ∞. Zuregatik jasan ditut irainak, '
Zuregatik lotsaz gorritua dut aurpegia.
Arrotz gertatu naiz neure senideentzat, '
ezezagun neure amaren seme-alabentzat.
Zure tenpluaren maiteminak erretzen nau,
eta gainera datozkit Zuri egindako irainak. R̄.
- ∞. Baina nik Zuri degizut otoitz; '
mesede-garaia duzu, Jauna.
Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, '
zeure salbamen leialaz.
Erantzun, Jauna, samurra baita zure maitasuna,
bihurtu nigana begiak zeure erruki handiaz. R̄.
- ∞. Ikus ezazue, apalok, eta poztu, '
izan bihotz, Jainkoaren bila zabiltzatenok.
Izan ere, entzuten die Jaunak behartsuei, '
ez ditu gutxiesten berari atxikiak.
Gorets bezate zeru-lurrek,
itsasoak eta bertan bizi diren guztiek. R̄.

Bigarren irakurgaia (*Erm 5, 12,-15*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekatuak egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da.

Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, askoz ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia.

Aleluia (*1 Sm 3, 9; ik. Jn 6, 68c*)

℣. Egiaren Espirituak aitormen egingo du nire alde, dio Jaunak, eta zuek ere egingo duzue aitormen. ℟.

Ebanjelioa (*Mt 10, 26-33*)**Homiliarako argibideak**

Egiak beldurra kentzen digunean

«Ez izan beldurrik». Hori esanez bidali zituen Jesusek apostoluak ebanjelioa iragartzera, munduko bazter guztietan jende guztiaren aurrean testigu izatera.

Eta egiteko hori ematean, hiru aldiz errepikatzen die beldurrik ez izateko.

Eta, zergatik izan behar zuten ba beldur? Ebanjelioa hots egitea eginkizun arriskutsua ote da ba? Izan ere, bai. Garai artan eta orain ere bai, egunotan, gizarterik aurreratuen eta askeetan ere bai, erlijio askatasuna eta adierazpen askatasuna aldarrikatzen direnean ere bai. Egiazko profetentzat ez da sekula adierazpen askatasun osorik egon.

Jesus atxilotua izan zen, epaitua eta heriotzara zigortua baita gurutzean hila ere... eta hori guztia behartsuei Jainkoaren erreinuaren ebanjelioa iragartzeagatik. Berdintsu gertatu zitzairen lehengo profetei ere, Jeremiasi adibidez, zapaldua eta pertsegitua izan baitzen tenpluaren eta tenpluko nagusien aurka mintzatzeagatik. Eta honela gertatu zen apostoluekin ere. Horregatik esan zien Jesusek beldurrik ez izateko.

Ebanjelioa hitz publikoa da. Ez jendaurrean esaten delako eta mundu osoari zuzendua dagoelako bakarrik, bizitza publikoari eragiten diolako ere bai. Berri ona ez da berririk onena gertatzen egiaren etsaientzat, bere burua jainkotzen dutenentzat, zapaltzaileentzat, ondasunetan aberastu direnentzat, guztien ongia bilatu beharrean bere buruarentzat bakarrik jarduten direnentzat.

Ebanjelioa ez da hitz ilun eta urrutikoa aingeruez ari dena, baizik eta ezpata bezala gizakien bizitzan eta jardunean zorrotz sartzen da. Ez da egia teorikoa, ulertu bai baina eragiten ez duena; egia praktikoa da, eraginkorra, bere alde edo aurka jarri erabakitzea eskatzen duena, Jainkoarekin dugun harremana aldatzen duena, Aita deitzen erakusten diguna eta gizakiak senidetzat hartzera garamatzana.

Ebanjelioak elkarrizketa bideratzen du, baina borroka ere bai inoiz, gorrotoaren eta gezurraren aurka egitera eragiten baikaitu, ilunpeen aurka ari den argia bezala.

Guztiok ebanjelioaren zerbitzura deituak gara: bataiatuok Jesusen egitekoan parte hartzen dugu, horretara konprometituak gaude, Jainkoaren asmoa betez eta bere Erreinua munduan gauzatzen saiatuz. Badakigu, ordea, Jainkoa gurekin dugula babesten, daramagun Ebanjelioa bera dugula indar Jainkoarengan sinesten dugunok.

Izan ere, ebanjelioarekin kontrajartzen den gezurra ez dago gure aurrean edo gure inguruan bakarrik, gure barruan ere bai sarritan. Eta bota egin behar dugu gugandik, Jainkoaren Hitzaren indarrez, ebanjelioa fedez onartuz. Jakinik, ezin diegula besteei iragarri geuk egiten ez duguna. Gezurrak menperatzen gaitu inoiz, ebanjelioa aitortzeko eta bizitzeko beldurra gudan sartuz, Jainkoaren eta gizakien aurrean testigu izatea galaraziz. Gezurraren aurka borroka egin behar da: egiak egiten gaitu aske, ebanjelioa da egia askatzailea. Ezin dugu beraz indarra, inposaketa eta gainetik egotea erabili... Testigantza eman behar dugu, eta egiari utzi bere indarrez errotu dadin eta fruitu eman dezan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari, senideok, entzun ditzala konfiantzaz eta pozez egiten dizkiogun otoitzak:

—Eska diezaiogun Kristo Jaunari bere bizitza Jaunaren zerbitzura sagaratu duten Eliz zerbitzarien alde eta egiazko Jainkoa gurtzen duten herri guztien alde.

- Eska diezaiogun mundua jakinduriaz gobernatzen duen Jainkoari gu guztion alde, mundua eta natura bereziki arretaz eta esker onez zaindu dezagun.
- Eska diezaiogun Jainko errukitsuari giza ahultasunaren, gorrotoaren eta enbidiaren sareetan lotuta bizi diren guztien alde.
- Eska diezaiogun Jaunari batak bestearen alde, jar dezagun gure bititza Beraren eskuetan eta egiogun otoitz uste onez gauza guztien Egile eta Nagusi denari.

Jesu Kristo Jauna, gure ahultasunean konfiantza izan duzu Zure hitzaren iragarle izateko; entzun gure otoitzak eta eutsi iezaguzu Espirituaren indarrez, gure fedez inoiz lotsa ez gaitezen baizik eta ausardiaz aitor dezagun gizakien aurrean, azken etorrerako egunean ere gure aldeko izan zaitezzen zeruko Aitaren aurrean. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, eskaintzen ari garen
bake- eta gorespen-sakrifizio hau;
garbitu eta berritu gaitzala
gure bititza osoa Zuretzat opari atsegingarri izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Kristoren Gorputz santuaz eta Odol baliotsuaz
berritu gaituzu, Jauna;
egizu misterio santu honetan parte hartzeak
ekar diezagula egiazko erospena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ekainaren 28an
URTEAN ZEHARREKO XIII. IGANDEA

Agurra

Aintza eta ospea zor diogu Jaunari! Bere bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jauna gure artean da egiaz. Bere bizitza eta hitza deigarri dira guretzat. Kristori jarraitzeko gogoz, Haren Ebanjelioa onartzeko asmoz eta Ebanjelio horretan seme-alaben askatasun osoa aurkitzeko pozez bildu gara: askatzaile gerta dakigula Berri Ona.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrea garelara, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, seme-alabatza hartu gaituzu maitasunez eta argiaren seme-alaba egin gaituzu; egizu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunpeak eta bizi gaitzela beti zure egiaren argi ederrean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Historian zehar, Jainkoak gizaki batzuk aukeratu ditu bereziki bere izenean bidaltzeko. Gero Jesusekin gertatu zen bezala, Itun Zaharrean ere garbi entzuten da Jainkoaren deia, erantzun libre eta benetakoa espero duen deia. Entzun dezagun!

Lehenengo irakurgaia (2 *Erg* 4, 8-11. 14-16a)

Erregeak bigarren liburutik

Behin batean, Eliseo Xunemdik igaro zen. Bazen han andre handiki bat, eta bere etxera eraman zuen Eliseo bazkaltzera. Harrezkero, handik igarotzen zen bakoitzean, bertan gelditu ohi zen Eliseo bazkaltzen. Behinola, andreak esan zion senarrari: «Begira, badakit gure etxera etorri ohi den hori Jainkoaren gizon santua dela. Egin diezaiogun goian gela txiki bat; ohea, mahaia, aulkia eta argiontzia ipiniko diogu, gurera etortzean bertan geldi dadin».

Etorri zen behin Eliseo eta, goiko gelara sarturik, bertan etzan zen. Eliseok Gehazi bere morroiari esan zion: «Zer egin dezakegu andre honen alde?» Gehazik erantzun zion: «Begira, ez du haurrik eta senarra zahartua du». Eliseok esan zion morroiari: «Dei egiozu».

Dei egin zion eta andrea atean agertu zen. Eliseok esan zion: «Datorren urtean, garai honetan, semea izango duzu besoetan».

Erantzun-salmoa (*Sal* 89 [88], 2-3. 16-17. 18-19)

Jau-na, zu-re mai-ta-su-na a-bes-tu-ko dut

be-ti-ren be-ti.

- ∞. Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko **ditut** beti,
zure leialtasuna iragarriko gizal**diz** gizaldi.
Bai, aitortzen dut: '
Betiko eraikia dago zeruan zure **maitasuna**,
sendo ezarria zure leialtasuna. R.
- ∞. Zorionekoa, Zu pozik goستن dakien herria!
Zure argitan ibiliko da, Jauna;
zure izenean da egunero alaitzen,
zure salbamen-egintzaz harrotzen. R.
- ∞. Zu baitzara haren ospe eta indar;
zure onginahiak egiten gaitu garaile.
Jauna da, izan ere, gure babeskia,
Israelgo Santua gure erregea. R.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 6, 3-4. 8-11)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioan hobiratuak izan gara harekin batean heriotzan, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun.

Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitza Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Aleluia (1 P 2, 9)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

- ∞. Zuek jatorri hautatua zarete,
 errege eta apaiz, nazio santua;
 iragar itzazue ilunpetik bere argi zoragarrira
 deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak. ∞.

Ebanjelioa (Mt 10, 37-42)

Homiliarako argibideak

Askatzen duen maitasuna

Ez zegoen erabakia guk sufritzea, ez da hori patuaren ondorioa. Ez dago debekatua zoriontsu izatea, ez da bekatu zoriontsu izan nahi izatea. Fededunak badaki, edonola ere, Jainkoak maite duela; fededunak badaki, gertatzen zaionaren arduraduna ez dela Jainkoa, bera baizik.

Jainkoak ez zuen mugatu nire zorionerako gaitasuna eta ez dizkit kendu hori lortzeko baliabideak. Jainkoak bere burua mugatu zuen, eta nire historiarekiko duen muga nire eskuetan utzi duen askatasun eta erabakitze gaitasunean neurtzen da. Gauza bat gorde zuen beretzat: ni maitatu ahal izatea

Bibliak dio, Jainkoak gizakia bere nahiaren Paradisuan jarri zuela. Bizitzea, gure erabakien arabera jokatzeko da neurri batean, eta gertatzen zaigunaren arduradun izatea. Askatasunaren eta erabakien nahaste horren ondorioz, gizakiok historia moldatzen dugu sarritan gozamenerako bide bezala, bestetan sufrimenerako hautu bezala, inoiz maitasunerako aukera, inoiz gorrotorako, inoiz zorionerako, sarri zoritxarrerako. Gure bizitza, orain, gurutzetik igarotzen da... igarotze horrek eraman gaitzake egiazko zorionera. Egiazko zoriona egunero ongiaren eta egiaren aldeko borrokan lan egitetik iristen da.

Aske izateak, ordea, ez du esan nahi Jainkoa gure historiatik kanpo geratu denik, gure erabakiek axola ez baliote bezala; hori balitz askatasuna, nola bizi? Jainkoari noski axola zaiola gizakia, Jesu Kristogan agertu digu gertukoa dela gure zorionean eta gure minean. Fededun izatea gauza guztiak Jainkoaren aurrean erabakitzea da, askatasunez, baina Jainkoaren aurrean eta Haren nahia bereiziz eta betetzen saiatuz.

Mateoren ebanjelioan Jesusen ahotan jartzen diren hitzak erabakigarriak dira: «Bere aita edo ama ni baino gehiago maite dituen ez niretzako gai... bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzako gai. Bere bizia bilatzen duenak galdu egingo du eta nigatik galtzen duenak aurkituko... Nigan sinesten duelako txiki bati baso bat ur ematen dionak, jasoko du bere saria». Bizitza ematea, basokada bat ur ematea ez da emaitza harrigarriak lortzeko estrategia bat. Eman ahal izatea bera bada nahikoa ordain; profeta onartzearen ordaina profeta bera da. Kristaua ez da ur basokaden

merkataria, ematen dituen ur basokadei balio profetikoa ematen diena baizik.

Fededunaren eta Kristoren arteko lotura bataioan oinarritzen du Paulok: fededun bataiatua heriotzaren erreinutik kanpo geratzen da eta Jainkoarentzat bakarrik bizitzen. Gure bizitza Kristogan errotzea ez da bekatutik urruntzea bakarrik, gure bizitza Jainkoari sagaratzea baizik. Sagaratze hori da Elizaren oinarria eta Elizan gertatzen da behartsuen zerbitzua, Kristo bera zerbitzatzea, eta Kristoren ordaina jasotzea: zerbitzari izatea. San Pauloren hitzetan: «dena da grazia».

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari, senideok, entzun ditzala konfiantzaz eta pozez egiten dizkiogun otoitzak:

- Eska diezaiogun Kristo Jaunari bere bizitza Jaunaren zerbitzura sagaratu duten Eliz zerbitzarien alde eta egiatzko Jainkoa gurtzen duten herri guztien alde.
- Eska diezaiogun mundua jakinduriaz gobernatzen duen Jainkoari gu guztion alde, mundua eta natura bereziki arretaz eta esker onez zaindu dezagun.
- Eska diezaiogun Jainko errukitsuari giza ahultasunaren, gorrotoaren eta enbidiaren sareetan lotuta bizi diren guztien alde.
- Eska diezaiogun Jaunari batak bestearen alde, jar dezagun gure bizitza Beraren eskuetan eta egiogun otoitz uste onez gauza guztien Egile eta Nagusi denari.

Entzun Aita ahalguztiduna Zure herriaren otoitzak eta isuri gugan jakinduria eta indar Espiritua, Kristorekin bat eginik gurutzearen bidea geure egin dezagun, gure itxaropenaren arrazoibide eman ez bizitza eskaintzeraino leial izan gaitez. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, sakramentu-ezaugarrien bidez
bere betera eramaten duzu gure erospena;
egizu, gu guztion zerbitzuak gai egin gaitzala
zure dohain santuak hartzeko.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eskaini eta hartu dugun opari santuak biziberri gaitzala, Jauna,
maitasunean etengabe Zurekin bat eginik,
beti iraungo duten fruituak eman ditzagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 5ean URTEAN ZEHARREKO XIV. IGANDEA

Agurra

Gure bihotza Jainkoa maitatzera zuzentzen duen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea, Elizaren fedea ospatzera bildu gara Igandean. Jesusek apal eta eskuzabal izateko deia egiten digu: horrela bizi direnei agertzen baitie Aitak osotasunean bizitzeko bidea. Aukera ederra dugu, gure bizitza iluntzen duten hainbeste gauzatik askatu eta garbitzeko, fedearen edertasuna berreskuratuzeko.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

- Jesus Jauna, Aitagana garramatzan bidea: Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, zure Semearen beheratzeaz,
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;
eman zeure fededunei egiazko pazko-poza,
bekatuaren uztarpetik askatu dituzunek
goza dezatela betiko zoriona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Maitasunaren indarra da Jainkoaren egitasmoaren ardatza. Maitasun horrekin gu bete eta maitasun horretara gu deitu, beti maitatuz joka dezagun. Hau ulertzeko apaltasuna da bidea, mundu honetako joera eta "indarrak" utzi eta Jesusen maitasun deia gureganatuz.

Lehenengo irakurgaia (Za 9, 9-10)

Zakariasen Profezia liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Poztu biziro, Sion hiri eder!

Egin irrintzi, Jerusalem hiriburu!

Hara, badatorkizu zeure erregea: zuzen eta garaile dator,
apal eta asto baten gainean, astakume baten gainean.

Berak hondatuko ditu Efraimgo guda-gurdiak
eta Jerusalemgo zaldiak;

hautsiko ditu guda-uztaiak, eta bakea iragarriko die nazioei.

Itsasotik itsasora aginduko du,

Eufrates ibaitik lurraren azken mugetaraino»..

Erantzun-salmoa (Sal 145 [144], 1-2. 8-9. 10-11. 13c-14)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-

a be-re be-ti - ko e-rru - ki - a.



- ∞. Goratuko zaitut, ene Jainko, ene **erre**ge,
bedeinkatuko dut zure izena bettiere.
Egunero zaitut bedeinkkatuko,
beti dut zure izena go**re**tsiko. ℞.
- ∞. Errukiorra eta bihozbera **da** Jauna,
haserregaitza eta onginahiz **be**tea.
Ona da Jauna guztientzat,
gupidaz betea bere sorkari guztientzat. ℞.
- ∞. Gorets zaitzatela, Jauna, zeure sorkari **gu**ztiek,
bedeinkatu zeure feddedunek;
aipa bezate zure erregetza osppetsua,
mintza bitez zure a**ha**lmenaz. ℞.
- ∞. Fidagarria da Jauna bere hitz guztietan,
leiala bere egintza guztietan.
Jaunak eusten die erortzear **da**udenei,
eta altxatzen ditu **lur** joak. ℞.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 8, 9. 11-13)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Zuek ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak biziaraziko ditu zuen gorputz hilkorrak ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

Zorretan gaude, beraz, senideok, baina ez grina txarrekin, horien arabera bizitzeko. Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, biziko zaretenideok, Jesu Kristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin. Amen.

Aleluia (Ik. Mt 11, 25)



∞. Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,
erreinuari buruzko Berri Ona
jende xumeari agertu diozulako. ∞.

Ebanjelioa (Mt 11, 25-30)

Homiliarako argibideak

Jende apala

Jakintsuek eta adituek garai guztietan gozatu dute jendearen estimuaz eta konfiantzaz. Osasun arazo bat dugunean, medikuarengana joaten gara. Lege kontuetarako, abokatu batengana. Jakiteak boterea ematen du, eta, batez ere, gaur egun, pertsonak maneiatzeko aukera ere ematen duen jakintza da. Garai guztietako jakintsuek eta adituek beren bizia segurtatzeko eta Jainkoa alde batera uzteko aukera ematen zien boterea izan dute. Gaur egun, jakintsuek ez ezik, jende arrunt askok ere uste du ez dutela

Jainkoaren beharrik, eta ez diote aukerarik ematen beren bizitzan sartzeko.

Bitxia bada ere, Jainkoaren ezagutza biblikoa ez da jakintza teorikoa, baizik eta Harekiko harreman estu eta maitekorra. Ekiten jakitea da, edo, hobeto esanda, Jainkoaren aurrean bizitzen jakitea, Hark ematen digun bokazioa bera bete ahal izateko. Maitasuna, ezagutza ez bezala, askea da. Utzi pertsonari maitatzeko askatasuna, eta askatu maitatzeko. Jesusek baieztatzen du Jainkoa jende xeheari ezagutarazten zaiola eta maite duela, eta ez jakintsu eta adituei. Jakintsuek eta adituek askotan beren burua eta beren sorkariak besterik ez dituzte maite. Hain dira garrantzitsuak, ezin dutela onartu dena Jainkoarengandik jaso dutela.

Jesusek bere garaiko botere politiko eta erlijiosoaren arbuioa sentitu zuen; jende, aldiz, xumeak onartu egin zuen. Jende garrantzitsuarekin izandako arrakasta txikiaren aurrean frustratuta sentitu beharrean, eskerrak eman zizkion Aitari gauzak horrela antolatzeagatik (*Mt* 11, 25-30). Apalak harroak nahasteko aukeratzen dituen Jainkoaren jokamoldea da. Jainkoak herri txikia aukeratu zuen bere errebelazioaren gordetzaile egiteko. Jesus errege bezala agertuko da Jerusalem bere sarrera ospetsuan, estilo apal eta xume hori hartuz. Jainkoak, arrakasta izateko, ez du baliabide-zabalkunde ikaragarririk behar; maite dutenen ahuleziarekin egiten du indarra. Maitasunaren indarra da (*Za* 9. 9-10).

Zoritxarrez, gizartean ez ezik, Elizan ere kezkatuegi gaude kopuruagatik. Jainkoaren Erreinua mundu honetako erreinuekin nahasten dugu. Ez dago ezer apartekorik indarraren eta aberastasunaren hedapenaren bidez arrakasta izatean, nahiz eta armen nagusitasunarekin ez diren beti batailak irabazten. Elizaren eta kristauaren indarra Jainkoaren Espiritutik dator (*Erm* 8, 9. 11-13). Gure gorputzak berpizteko gaitasuna du, Kristo Jesus berpiztu zuen

bezala. Jainkoaren Espirituak eraman eta gidatu behar gaitu, eta ez giza kalkulu hutsek, San Paulok “haragia” deitzen dituenak.

Ezagutzak, zientziak eta teknikak, dudarik gabe, Jainkoaren egitasmoan dute beren zentzua, Harengandik baitator jakintza oro. Ezin dira, ordea, giza ekintzaren azken irizpidea izan. Gutxi batzuen zerbitzura dagoen teknika berekoi batek masen esplotazioa eta mundu bizigaitz bat eraikitzen darama. Eskatu Jaunari eukaristia honetan Jesusena bezalako bihotz xume eta apala, arimaren bakea aurkitzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala gure otoitzak:

- Egigun otoitz Leon Aita Santuaren eta Fernando gure gotzainaren alde; Jaunak eman diezaiela adorea eta argia beren ardurapeko elkartek santutasunez zaindu ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Jaunak egiazko bakea eman diezagun; bakearen egiazko iturria denak eman diezagula bizikidetzak baketsua eta barneko espirituzko-bakea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Ebanjelioaren bidean zintzo saiatzen diren guztien alde, Jaunak asmo horretan lagun diezaien; eta berekoikeriak Jainkoarengandik urruntzen dituenak izan dezatela bihotz berria iristeko grazia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Egigun otoitz Jainkoari hildakoen alde, bereziki gure senide, adiskide eta ongile hildakoen alde. Jaunak bere erruki handiz bere aintzan onar ditzan santu eta aukeratu guztien artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zure erreinuaren aberastasuna apalei agertu diezu; entzun gure otoitzak eta egizu Zure Semearen ikasle izanik Berarekin eraman dezagula gurutzearen uztarri leuna, egiazko atsedena zugan bakarrik aurki daitekeela gure senideei jakinaraziz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Eskaintzen dizugun opari honek garbi gaitzala, Jauna,
eta eraman egunetik egunera
zerutar bizi berria geuregan agertzera.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Mugarik gabeko zeure maitasunaren dohainez
janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, lor ditzagula salbamen-fruituak
eta bizi gaitezela beti Zu goresten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 12an
URTEAN ZEHARREKO XV. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristiaren ospakizuna hitza da: Kristo bera da, gizon egin den Jainkoaren Hitza. Prest egon behar dugu, bihotz zabalez eta jarrera onez, Hitz hori entzun, barneratu eta fruitu.

Damu-otoitza

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, okerbidean dabiltzanei
zeure egiaren argia agertzen diezu
bide zuzenera itzul daitezen;
egizu, beren burua kristautzat daukatenek
utz dezatela izen horrekin bat ez datorren guztia
eta bete izen horri dagokiona.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Euriak eta elurrak lurtean duten eragina irudi harturik, Jainkoaren hitzak gizon-emakumeengan egiten duena adieraziko digu liburu Santuak. Gero hots egingo dugun ereilearen parabola entzuteko prestatuko gaitu Itun Zaharreko zatiak.

Lehenengo irakurgaia (Is 55, 10-11)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:

«Euria eta elurra zerutik jaisten dira
eta ez dira berriro hara itzultzen
lurra ase, ernaldu eta ernamuindu gabe,
ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan;
hala egingo du nire ahotik ateratako hitzak ere:
ez da Nigana hutsik itzuliko,
baizik eta egingo du Nik nahi dudana
eta beteko Nik ezarritako helburua».

Erantzun-salmoa (Sal 65 [64], 10abcd. 10e-11. 12-13. 14)

Zu - re hi-tzak, Jau - na, es - pi-ri-tu e - ta bi-zi di - ra.



- ∞. Zuk duzu lurra zaintzen, urez **a**setzen
eta oparo **a**berasten.
Urez gainezka doa zeruko **u**bidea;
Zuk ematen diozu gizakiari gari-**a**lea. ∞.
- ∞. Zuk prestatzen lurra **h**onela:
ildoak ureztatu, zokorrak **ber**dindu,
euri-zaparradez harrotu, ernamuinak **be**deinkatu. ∞.
- ∞. Zeure ondasunez burutzen duzu **ur**tea,
joritasuna dariela daude zure **b**ideak.
Heze eta jori daude landa **z**abalak,
alaitasunez apaindurik mendi-**h**egalak. ∞.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 8, 18-23).

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero guban azalduko den aintzaren aldean. Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. Izadiak bere benetako helburua galdua izan arren –ez bere gogoz, horretara behartu zuenarengatik baizik–, badu itxaropena, esklabotzatik eta hondamenetik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko.

Badakigu, jakin ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, gu geu ere bai; Espiritua lehen-dohain bezala hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain

Aleluia

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Hazia Jainkoaren hitza da; ereilea, **berriz**, Kristo; honi aditzen dionak betiko bizia **izango** du. ∇.

Ebanjelioa (*Mt 13, 1-23 edota laburrago 13, 1-9*)

Homiliarako argibideak*Fruitu eman*

Gizateriaren zatirik handiena landan bizi da eta nekazaritzan egiten du lan. Bizimodu horrek oso erritmo desberdinak ditu hirikoekin alderatuta. Gure mundu aurreratuan ohituta gaude botoi bat sakatzen eta nahi dugun emaitza berehala lortzen. Askotan ahaztu egiten dugu zientziaren eta teknologiaren emaitzak lortzen direla haien denbora eta beharrezko inbertsioak eskatzen dituzten saiakuntza askoren ondoren.

Nekazariak pazientziaz itxaron behar du. Formakuntzaren eta kulturaren lanak nekazariaren pazientzia eskatzen du. Jesusek hitza erabiltzen du bere entzuleak hezteko, eta bere garaian nagusi zen nekazaritza-munduko hainbeste irudi hartu ditu. Arriskutsua zen Jainkoaren Erreinuaren etorrerari buruz irakastea, zalantzan jartzen baitzituen haren garaiko gizarte-antolamendua eta jendearen bizimodua. Gainera, Erreinuaren etorrera bere jarduera eta pertsonarekin lotzen zuen, eta hori ez zen begi-bistakoa, nahiz eta mirariak egiten zituen.

Ez da harritzekoa Jesus, nolabaiteko arrakasta izan ondoren, ulertu gabe sentitzea eta krisian sartzea. Horrek ez dio eragozten Erreinuaren etorrera iragartzen jarraitzea eta bere predikazioan aurkitzen dituen oztopo guztiak gorabehera gertatuko dela irakastea. Parabolek argi eta garbi erakusten dute egia gai dela aurrera egiteko, nahiz eta irakasleak eta ikasleek mugak izan. Ereileak ere badaki hazi asko galdu egingo direla, baina ernatu, hazi eta heltzen diren horietatik fruitu ugari jasotzeko esperantzarekin ereiten du (*Mt 13, 1-23*).

Neurri handi batean, haziaren kalitatearen araberakoa izaten da uzta. Kasu honetan hazia Jainkoaren hitza da, fededunarentzat salbazio-indarra dena. Berak badu bere baitan emankortasun hori, euriarekin edo elurrarekin konpara daitekeena, profetak Jainkoaren Hitza konparatzen duenarekin (*Is 55, 10-11*). Haiak bezala, hitzak joan-etorriko bidaia egiten du, Jainkoagandik gizakiagana eta gizakiagandik Jainkoagana. Jainkoaren hitza beti da eraginkorra eta Jainkoak nahi duena egiten du.

Jainkoak bere Hitza haragi bihurturik bidali du mundura. Jesusek Jainkoaren Hitza iragarri zien gizakiei, eta agindutako misioa bete zuenean baino ez zen itzuli Aitarengana. Jesusek betiko bizitzari buruzko hitzak ditu, gizakiaren bizitza elikatu eta bizitzari zentzu bat ematen laguntzeko gai direnak.

Jesusen adibideak bultzatuta, sinestunek, eta bereziki hitzaren ministroek, Berri Ona munduari iragartzen jarraitzen dute. Jainkoaren Hitzak gure barnetasuna agerian jartzen du eta ikusarazten digu ea berri guztiak arrastorik utzi gabe igarotzen diren gizaki-bideak garen, sakonik gabeko pertsona harritsuak, ongia eta egia bere baitan itotzen duten sasi-izakiak, ala, aitzitik, lur onak ekoiztutako gari garbiak garen.

Nortzuk dira lur onak? Hitza entzun eta ulertzen dutenak. Ez da nahikoa, beraz, hitza entzutea. Ulertzeko ahalegina egin behar da, bertan sartzekoa, bere zentzua aurkitzekoa. Hitz hori hausnartu eta geureganatu ondoren bakarrik da posible hori, hitz hori gure bizitzaren elikagai bihurtuz. Eukaristian Elizak elikatzen gaitu hitzaren mahaian eta Kristoren gorputz eta odolaren mahaian, guk ere betiereko biziaren fruituak sor ditzagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: iritsi daitezela gure otoitzak Jaunarengana, gure bihotzak ezagutzen dituenarengana.

- Eska dezagun Jainkoaren Semearen jakinduria Jainkoaren Hitza leialtasunez aldarrikatzen dutenentzat eta Eliza zerbitzatzen duten guztientzat.
- Eska diezaiogun egiaren jabe bakarra den Jaunari, katolikoak ez diren beste kristau guztien alde, itun zaharraren herri diren juduen alde eta egiazko Jainkoa ezagutzen duten guztien alde.
- Eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari etxetik urruti bizi diren guztien alde, kartzelatuen, ahulen eta zapalduen alde eta pertsegituak direnen guztien alde.
- Eska diezaiogun fedez zeruko Jaunari, hemen, bere etxean bilduak gauden guztion bakearen eta zorionaren alde.

Entzun, Jauna, Zure herriaren otoitzak eta ugari ezazu gugan Zure hitzaren hazia onartzeko gogoia; egizu gizadi osoarengan ale hori ereinez, zuzentasunezko eta bakezko fruituak sor daitezela, gizaki guztiei Zure erreinuaren itxaropena adieraziz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Begira, Jauna, otoitzean ari del Elizaren dohainei
eta egizu, horiek hartuko dituzten fededunak
gero eta santuago zain daitezela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zeure mahaian janaritu gaituzu, Jauna;
egizu, misterio hauetan parte hartzen dugun bakoitzean
sendo dadila gure salbamenaren emaitza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 19an
URTEAN ZEHARREKO XVI. IGANDEA

Agurra

Jainko itxaropen-emailea, Espiritu Santuaren egintzari esker bere pozaz eta bakeaz betetzen gaituena, izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandeko batzarrean bilduta, esker onezko otoitza egitera goaz Jainkoaren Hitzaz entzunez eta Kristoren eskaintza berrituz. Zuzentasunean eta bakean Bere Erreinua gure artean eraiki nahi duen Jainko Maitekorra ospatzen dugu, batasunean eta elkarrekiko begirunean nahi gaituena. Gorespenezko eta esker onezko jaia has dezagun pozez beterik.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekatuak ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaituzen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena eskaini zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua agindu zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua eman zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Begira, Jauna, begi onez zeure zerbitzarioi
 eta emazkiguzu ugari zeure graziaren dohainak,
 fedez, esperantzaz eta maitasunez suturik
 zure aginduak betetzen erne iraun dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak itxaropenezko mezua agertzen digu. Jainkoak, gu
 ontasunean eta maitasunean bizitzea nahi du. Eta nahiz sarritan gu
 bestela bizi, zain dugu beti bigarren aukera emateko. Jainko
 barkamen-emaile hori bera agertuko digu Jesusek Ebanjelioan.

Lehenengo irakurgaia *(Jkd 12, 13.16-19)*

Jakinduria liburutik

Ez da gauza guztiez arduratzen den Zu beste jainkorik,
 ez duzu zure epaia zuzena dela inori frogatu beharrik.
 Zure indarra da justiziaren oinarria,
 eta gauza guztien nagusi izateak
 guztiekin errukior izatera zaramatza.
 Guztiz ahaltu zarela sinesten ez dutenei
 zeure indarra erakusten diezu,
 eta, zure indar hori aitortu ez arren,
 ausardiaz jokatzeko dutenak nahasten dituzu;
 baina Zuk, zeure indarraren nagusi zaren horrek,
 neurritasunez epaitzen duzu
 eta bihozberatasun handiz gobernatzen;

zeure esku duzu nahi duzunean indarraz baliatzea.
 Horrela jokatzuz erakutsi diozu zeure herriari
 gizon zuzenak gizakiaren adiskide izan behar duela,
 eta, bekatariei bihotz-berritzeko aukera emanez,
 itxaropenez bete dituzu zeure seme-alabak.

Erantzun-salmoa (Sal 86 [85], 5-6. 9-10. 15-16a)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

- ∞. Ona zara, Jauna, eta barkabera,
 dei egiten dizutenentzat onginahiz betea.
 Aditu nire otoitza, Jauna,
 kasu egin nire erregu-oihuari. R̃.
- ∞. Egin dituzun nazio guztiak ‘
 zure aurrean ahuspeztera etorriko dira, Jauna,
 eta zure izena ospatzera.
 Handia zara, eta mirarigilea,
 Zu bakarrik Jainko. R̃.
- ∞. Baina Zu, Jauna,
 Jainko bihozbera eta errukiorra,
 haserregaitza, onginahiz eta leialtasunez betea,
 itzuli nigana eta erruki zakizkit. R̃.

Bigarren irakurgaia (*Erm 8, 26-27*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Espiritua datorkigu geure ahulerian lagun, guk ez baitakigu behar bezala otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen du gure alde, ezin esan ahaleko intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zein den Espirituaren gogoia, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen baitu fededunen alde.

Aleluia (Ik. *Mt 11, 25*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-**lurren** Jauna,
erreinuari buruzko **Berri** Ona,
jende xumeari agertu di**o**zulako. ∇.

Ebanjelioa (*Mt 13, 24-43 edota laburrago 13, 24-30*)

Homiliarako argibideak

Nondik dator gaitza?

Gerrak, izurriteen beldurrak, ezinegona, gosea, etorkizuna ilun ikustea... gure mundua aztoratzen duten gaitzak dira. Askotan, bizi garen etxe komunarekiko eta ontzi berean abentura bera partekatzen dugun pertsona eta taldeekiko zainketa faltaren ondorio da. Dena dago elkarri lotua. Gaizkia gure artean dago, eta gaizkia, askotan, ez

da naturala, guk geuk eragindakoa baizik, justiziaren eta bakearen erreinuaren etsai bihurtzen garenean.

Gaizkiaren esperientziak hainbeste aldiz eramaten du gure burua galdetzerara: Non da Jainkoa? Egia esan, galdera hau da: Zergatik daude besteak esplotatzen dituzten pertsonak? Zergatik uzten dio Jainkoak bidegabekeriari munduan nagusitzen? Gure bihotza bidegabekeriaren kontra altxatzen bada, zapalduen justizia egiten dien Jainkoaren irudira sortuak garelako da?

Pazientzia izan behar da, eta itxaroten jakin, Jainkoak bezala, ez baitzuen etsi hainbeste giza ukapenen aurrean. Neurria erabiltzen jakin izan du beti, eta ez du bere Erreinoa indarkeriaz inposatu nahi (*Jkd* 12. 13. 16-19). Jainkoak beti ematen du aukera bat bere etsaiak bihotz-berri daitezzen. Erreinuak, ereintzak bezala, bere erritmoak ditu, errespetatu beharrekoak. Teknikaren munduan, aldiz, ohituta gaude botoi bat sakatzera eta gure nahiak betetzera.

Hala ere, Jainkoa ez da geldirik egoten, edo besoak gurutzatuta, munduko gaitzaren aurrean. Bera etengabe ari da onaren bidez gaizkiaren aurka borrokatzen. Jainkoari eskerrak, ongia gaizkia baino handiagoa da beti, bestela mundua kaosera itzuliko litzateke. Jainkoa etengabe ari da lanean bere Erreinoa ekartzeko. Baliabideen ustiaketan eta kontsumismoan oinarritutako herrialde aurreratuetako bizimoduan norabidea aldatzeko unea iritsi da.

Zibilizazio eredu hori aldatzea ez da erraza izango, baina beharrezkoa da lanean hastea, keinu txikietatik hasita. Erreinuak hasiera txikiak izaten ditu beti. Jesusen inguruko talde txiki batekin hasi zen dena. Erreinuak indar guztia Jainkoagandik eta bere Espirituagandik datorkio. Horrela Elizari ere. Olean legamia izatea da bere egitekoa. Garrantzitsuena orea da (*Mt* 13, 24-43). Legamiak bere efektua egiteko olean desagertu behar du, eraginkortasuna ematen dion legamia izaera galdu gabe, noski.

Kristauok ez gara aparteko mundu batean bizi, ezta herrialde kristauetan ere. Gizaki guztiakin bizi gara, hizkuntza eta kultura bera erabiltzen ditugu, nahiz eta ebanjeliotik datozkigun eta gizaki guztientzat eta gizartearentzat garrantzitsuak direla uste dugun balio batzuk lantzen ditugun. Beste gizakiekin bakarrik bizi izanez, Jainkoarenganako bere erromesaldian lagunduz, burutu dezake Elizak bere misioa. Eukaristiaren ospakizunak Erreinua aurreratzen du. Bertan mundu honetako elementuak, ogia eta ardoa, Kristoren gorputz eta odol bihurtzen dira. Jesus sortzera etorri zen senidetasunaren ezaugarriak dira.

Jainkoaren herriaren otoitza

Otoitz egin diezaiogun, senideok, errukiaren Jaunari gure ahultasunean lagun gaitzan, Berak nahi bezala bere izenari dei egin diezaiogun.

- Elizen arteko bakearen alde, kristau guztien batasunaren alde eta gure zorionaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beraien ardurapean bakezko eta ongizatezko bizitza izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Etxetik urrun direnen alde, gaixoen eta kartzelatuen alde, sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Fedez eta begirunez biltzen den gure elkartearen alde, gure parrokian on egiten duten guztien alde eta behartsuei laguntzen dietenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.

Euskarri gerta dakizkigula, Jauna, Zure indarra eta eramanpena, Elizarengan gordea dagoen ebanjeliozko hitzak gudan fruitu eman dezan eta itzaropenez saia gaitezen gizadi berria sortzen, eguzkia bezala agertu eta argiz beteko gaituen Kristo etorri artean. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, Itun zaharreko opari desberdinak
beren betera ekarri dituzu
Kristoren gurutzeko sakrifizio bakar eta bikainean;
onar ezazu eta egin santu zeure zerbitzarion sakrifizioa,
garai batean Abelena bedeinkatu zenuen bezala,
eta egizu, gutako bakoitzak
zure handitasuna goresteko eskaintzen duen hau
izan dadila gizon-emakume guztien salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin,
eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei emaiezu,
beren izate zaharra utzirik,
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 25ean **SANTIAGO APOSTOLUA**

Agurra

Apostoluen oinarri-gainean Eliza eratu zuen Kristo Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea, Jesusek aukeratu zituen ikasle haien fedean eta testigantzan oinarritzen da. Horregatik ospatzen ditugu apostoluak eta hartzen ditugu zaindarizat. Santiago apostoluaren oroitzapenak, gure fedea indartzen laguntzen digu, Jesusi jarraitzeko asmoa berrituz eta testigu izatera bidaliz.

Damu-otoitza

Isilean, Jainkoaren aurrean jarri, eta eska dezagun Ebanjelioaren grazia berritzailea, Eukaristia hau ospatzeko presta gaitzan.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Santiagoren odol-isurtzeaz sagaratu zenituen
Apostoluen lehenengo ebanjelizatze-lanak;

egizu, zure Elizak,
 haren zaindaritzaz etengabe indarberriturik,
 sendo iraun dezala haren testigantzaz
 eta gure herriek leial jarrai diezaiotela Kristori
 mendeen azkeneraino.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren hitza entzutera goaz Santiago apostoluaren festaburuan. Apostoluen bidez etorri zaigu Jesusen Berri Ona. Eta berri on hori ekarri ziguten gizon haiei begiratzen diegu. Gu bezala ahulak izan arren, berri onarekiko leialtasunari heriotzeraino eutsi zioten.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 4, 33; 5, 12. 27-33; 12, 2*)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz.

Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue».

Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-

-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua».

Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

Erantzun-salmoa (Sal 67 [66], 2-3. 5. 7-8)

Lur o-so-a, e-gi-o-zu i-rrin-tzi Jain-ko-a-ri.

- ✧ Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gaitz**ala, ager diezagula aurpegi **argi**a, ezagut dezaten munduan zure **bide**a, nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ✧.
- ✧ Poztu bitez kantari **nazi**oak, zuzentasunez baitituzu gobernatzen **herri**ak eta gidatzen munduan **nazi**oak. ✧.
- ✧ Lurrak bere uzta **em**an du, Jainkoak, gure Jainkoak, bedeinkat**zen** gaitu. Bedeinka gaitzala **Jain**koak, izan diezaiola begirune mundu **o**soak. ✧.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 4, 7-15)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Aleluia



- ℣. Gure Elizaren izar dirdaitsu, Santiago apostolua:
bakean dago zure **g**orputza,
gure artean bizi da **z**ure aintza. ℟.

Ebanjelioa (Mt 20, 20-28)

Homiliarako argibideak

Apostoluen oinarri gainean

Apostoluen festaburua aukera bikaina izan ohi dugu gure kristau izatearen eta Eliza izatearen oinarriak aztertu eta indarberritzeko. Santiagoren festaburua ere, aukera paregabea dugu gure fededun izatearen hariak berritzeko eta hari horiek behar bezalako tentsioz tiratuak ote dauzkagun arakatzeko. Izan ere, fededun izatea, apostolutar izatea da: alegia, gure fedea apostoluen testigantzan eta aitormenean finkatzen zaigu, eta beti ere gure fedea apostoluen eskutik sendotu behar du.

Santiago nor zen? Nolakoa zen? Gaurko Ebanjelioan ematen zaizkigun zehaztasunak hor dauzkagu: handizalea nonbait, Jesusen Erreinua giza irizpidez neurtzen zuen. Besteak baino gehiago izan nahi zuen, aurretik agertu. Mundutar jokabide baten desio eta egarriak zituen bere barnean. Ez baitzuen ulertu, beste apostoluek ere ez zuten ulertu, Jesusen Erregetza nola eta nondik mamitzen zen.

Zerbait aldatu da, ordea. Pazko-misterioaren Espirituak hankaz gora jarriko ditu gizon haien usteak eta barne-joerak. Jesusen pazko-bidea erabat itsatsiko zaie beren barnean. «Nik edango dudak kalizak» (Nekaldiak eta Pazko-misterioak, alegia), erabat aldatu ditu apostoluak. Jesus, izan ere, ez dute handizale eta aginte-gose ikusten. Jesusek azkeneraino zerbitzatu du, besteen onerako bizia emateraino. Eta zerbitzu-mota berri honek, bestelako postura batera daramatza jarraitzaile haiek. Gure legea, besteen gainetik egotea baldin bada, besteak menperatzea, norbera igotzea... «ez bedi izan horrela zuen artean». Eta Jesusen hitz horiek, agindua ez ezik, gurutzerainoko programa dira. Eta apostoluen bihotzean Espirituzko hitzez idatzia geratuko den programa. Aldaketa bikaina.

Aldaketa hori nolakoa izan den? Lehenengo irakurra ikus dezakezu. Hor agertzen zaizkigu gizon haiek, adoretu, munduko ahalmen eta aginteen aurrean beldurrik gabe, Jesus berpiztuaren berri ematen. Mehatxu, zigor, agindu... ez alferrik! «Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena». Lehen handizale, berekoi, beldurti. Orain adoretu. Eta a zer adorea! Santiagok bere bizia emango du (bera izan zen horretan lehenengoa) Jainkoaren esana betetzeagatik. Nork ikusi eta nork ikusiko? Lehen izan-zale zena, orain bizia galtzeko pronto. Zerbait berria ulertu dute, zalantzarik gabe: Jesusen Kalizak aldatu ditu.

Orain uler genezake San Paulok bigarren irakurra esana. Apostoluaren indarra ez dago apostoluarengan berarengan. Apostolu izatea ez da berez indartsu eta ahalmentsu izatea. Jainkoak agertu behar du apostoluarengan indartsu. Eta Jainkoa indartsu ager dadin, ikaslea ahula izatea onena. Giza-ahultasuna, Jainkoaren indarrez janzten baita. Eta zein indartsu den Jainkoa, berarengatik ahul egiten direnengan azaltzen da. Bai: beti apostolutza (Jainkoaren Erregetza zerbitzatzea) larrialdien eta erasoaldien artean mamitzen da. Horietan (larrialdi eta erasoaldien ahultasunetan) Jesus berpiztuaren bizi indartsua agertzen da.

Santiagoren festaburua aukera paregabea dela esan dugu gure bizitza eta kristau-jarduna aztertzeko. Honi begira diezaiokegu:

- Lehenengoa: Jainkoak garen bezala aukeratu gaitu, handizale, indar-gose, izan-zale... Baina, bere Pazko misterioaren ahalmenez aldatu egiten gaitu: Jesusen bidetik bakarrik izan gaitzke apostolu. Handizalekeriak eta utzi beharra dauzkagu. Horiek ez dira Jesusen jokabide. Bide mundutarra da handikeriena.
- Bigarren: Jesusen kaliza edateak zerbitzua esan nahi du. Jainkoaren esana jarri beste asmo eta programa guztien aurretik eta gainetik.

Horretarako, apostoluen Espiritu bera beharko du Elizak. Espiritua! Izan ere bestela, hain erraza da giza- bideetan gelditzea, handinahikerietan erortzea, gezurraren zerbitzuan jaustea... Gurutze-bidea ez baitzaigu maitagarri gertatzen. Eta ez zaigu gustagarria gertatzen bide hori, ahultasuna eta pobretasuna eta txikia izatea eta ez ditugulako maite.

- Hirugarren: Gure apostolutza-egintzaren oinarriak non dauzkagu jarriak? Ez al gara gehiegi fidatzen geure programa handi eta zehatzez? Eta, horrexegatik, ez al dugu apostoluen ausardia libre eta freskoa galdu? Ez al gabiltza zenbait indarren morroi kobarde bihurturik? Oraindik ez ote dugu ulertu «haren kaliza» edan behar dela apostolu izateko? Gure eliz elkarteek bizi duten ahulaldia izan daiteke aukera ederra Berri Onaren bideetara etortzeko. Gure ahulaldian gertatzen da Jainkoaren indarra. Gure eskasian egingo du Jainkoak eliz elkarte berria. Ez dezagun ahaztu: Jainkoaren jokabideak eta irizpideak ez dira gizon-emakumeonak bezalakoak. Une eskasenean gaudelarik, egon gaitzke une aukerakoenean.

Ospatzera goazen Eukaristia da apostolu egiten gaituen Kaliza. Edan dezagun, eta berak egin gaitzala Jainkoaren esanaren zerbitzari. Esker onezko kopa santuak eman diezagula gure herrian Ebanjelioa zerbitzeko adorea eta poza. Apostolutar fedea aitortu dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Otoitz egin diezaiogun, senideok, apostoluen fedean oinarritu nahi izan gaituen Jainkoari, eta eska diezaiogun denon alde:

- Elizak, altxor bezala gorde dezan apostoluen predikaziotik jaso zuen fede eta leialtasunez hots egin diezaiela belaunaldi guztiei.
- Herrietako arduradunen alde, eskuzabalez eta zerbitzu jarreraz bete dezaten, jendeak beraien esku utzi duen ardura.

—Apostolu martirien antzera, pertsekuzioa jasan eta bere odola isurtzen duten egungo kristauen alde. Horien testigantza biziak denon fedea suspertu dezan.

—Hemen bilduak gaudenon alde, Santiago Apostolua ospatzeak Jesu Kristorekin egiaz lotu gaitzan.

Gure Salbatzaile zaren Jesus Jauna, Zuk dei egin zenion Santiagori, sareak utzi eta jarrai diezazun; entzun gure otoitzak eta sendotu gure borondatea bera bezala Zure deiarekin leial izan gaitezen. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Kristoren kaliza edaten
Apostoluetan lehenengoa Santiago izatea nahi izan zenuen;
haren festaburua ospatzean garbi gaitzazu
zeure Semearen nekaldiko bataio salbagarriaz,
sakrifizio atsegingarria eskain diezazugun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
Santiago apostolu eta gure zaindariaren festaburua ospatzean
pozik hartu ditugun dohain santuengatik;
hura laguntzaile dugula,
zaindu gaitzazu beti zeure babespean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Uztailaren 26an
URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA

Agurra

Errukiaren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Senideok: fedea partekatzen dugu Eukaristia ospatzean. Fedea, berritasuna da, askatasuna, gure lasaitasunetik ekintzara eta bizipenera eramaten gaituena. Egin dezagun ibilaldia, ohituratik berritasunera garamatzana, esamesatik eta hitz txarretik bedeinkapenera eta lankidetzara garamatzana.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen babesleku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, Zugan uste on dutenen babesza zarena,
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
erakutsiezaguzu zeure erruki handia,
Zu gidari eta erakusle zaitugula,
zuhurtasunez balia gaitezen lurreko gauzez,
eta oraintxedanik betiko ondasunei itsatsirik bizi gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Erregeak liburutik irakurriko dugun Jainkoaren hitzak Jainkoaren laguntza eta babesa agertzen ditu. Bihotz zabalak eta senideekin errukiorrak izanez gure aldetik ahalegina egiten badugu, beteko gaitu Aita onak bere bedeinkapenaz: horra egiazko altxorra, Ebanjelioak aurkezten digun dohain baliotsua.

Lehenengo irakurgaia (*1 Erg 3, 5. 7-12*)

Erregeak liburutik

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion ametsetan Gabaonen Salomoni, eta esan zion: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut».

Salomonek erantzun zion: «Jauna, ene Jainkoa, nire aita Daviden ordeztu ni, zeure zerbitzari hau, egin nauzu errege. Ni, ordea, gaztea naiz eta ez dakit nola gobernatu. Zure zerbitzari hau Zeuk aukeratu duzun herriaren erdian dago, herri izugarria, ugariaren ugariz ezin konta ahalekoa. Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Bestela, nola gobernatu zure herri handi hau?»

Atsegin izan zitzaion Jaunari Salomonen eskaria, eta esan zion: «Hori eskatu duzulako, eta ez zeuretzat urte asko, aberastasunak edota zeure etsaien heriotza, baizik eta zuzen gobernatzeko jakinduria eskatu duzulako, beteko dut zuk eskatua; zure aurretik inork izan ez duen eta zure ondoren ere inork izango ez duen adinako jakinduria eta adimena emango dizut».

Erantzun-salmoa (*Sal* 119 [118], 57 eta 72. 76-77. 127-128. 129-130)

Bai mai - te du - da - la, Jau - na, zu - re le - ge - a.

- ∞. Jauna, ene ondasun **ba**karra,
erabakia dut zure hitzak **gorde**tzea.
Zein ona niretzat zure ahoko **le**gea,
urre-zilarrezko milaka txanpon baino **ho**bea. ∞.
- ∞. Arren, kontsola nazala zure maita**ta**sunak,
zeure zerbitzari honi hitzeman **di**ozunez.
Betorkit zure gupida, bizib**erri** nadin,
zure nahian baitut **go**zamina. ∞.
- ∞. Nik, ordea, maite ditut zure **agi**nduak,
urrerik finena baino **ge**hiago.
Horregatik, zuzentzat ditut zure lege **gu**ztiak,
eta gorroto dut jokabide **mal**tzur oro. ∞.
- ∞. Harrigarri dira zure man**ame**nduak;
horregatik ditut gogoan **gor**detzen.
Argigarri da zure hitzen adier**az**pena,
adimena ematen die ez**ika**siei. ∞.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 8, 28-30)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Badakigu bera maite dutenen onerako bideratzen dituela Jainkoak gauza guztiak, bere aurre-erabakiaz deitu dituenen onerako, alegia.

Aurrez ezagutu zituenak aukeratu ere egin zituen, bere Semearen irudiko izan zitezen eta, horrela, Semea senide askoren artean lehen-
 seme izan zedin. Aurrez aukeratu zituenak deitu ere egin zituen;
 deituak, berriz, zuzentzat hartu, eta zuzentzat hartuak aintzaz bete.

Aleluia (Erm 8, 15)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

✠. Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,
 erreinuari buruzko **Berri** Ona
 jende xumeari agertu diozulako. ✠.

Ebanjelioa (Mt 13, 44-52 edota laburrago 13, 44-46)

Homiliarako argibideak

Altxorraren bila

Kontsumismoa, poliki-poliki, Ipar hemisferioko gizakiaren bihotzaz jabetzen joan zen eta balio absolutuan eraiki zen. Egungo krisiak agerian utzi du zibilizazio eredu horren agortzea, irteerarik gabeko kalezulo batera eraman gaituena, planetako bizia arriskuan jarritz. Lider internazional eta ahots baimendu askok zibilizazio eredu aldatzeko eskatu dute. Kontua ez da atzera egitea eta benetako giza aurrerapenari uko egitea, baizik eta bizitza pertsonala eta soziala oinarri izan dezaketean funtsezko balioetara itzultzea.

Balio horiek, besteak beste, urritasuna, elkartasuna, partekatzea, planetaren eta pertsona ahulenen zaintza dira. Adinekook gure haurtzaroan ezagutu genituen balioak ziren, eta aitortzera garamatzate: gutxiago genuen baina zoriontsuagoak ginen. Bagenekien bereizten zer den funtsezkoa eta zer garrantzitsua eta zer ez. Jesus konturatu zen Jainkoaren Erreinua zela balio absolutu bakarra, eta hori lortzeko beharrezkoa zela zeukan guztia utzi eta Erreinuari erabat ekitea.

Erreinua izan zen bere grina handia, bere bizitzari zentzua eman ziona, bere garaiko kulturaren arabera hain arrazoizkoa ez zen bizimodua besarkatzera bultzatu zuena. Familia bat sortu eta lanbide batean aritu ordez, Jainkoaren Erreinuako predikari ibiltari izan zen. Horrexek betetzen zuen, horrexek egiten zuen zoriontsu. Eta bere ikasleei bere grina hori kutsatzen jakin zuen, Hark bezala, familia eta lanbidea utzi eta bere bizitza eta heriotzan lagun egin ziotenek Erreinua iragartzeko misioari eutsi baitzioten. Esan dezakegu Jesus eta bere ikasleak pertsona zentratuak zirela, zer nahi zuten zekitenak eta benetako zoriontasuna egiten zuten horretan aurkitu zituztenak.

Jainkoaren Erreinua altxor handia da, balio handiko perla, baina ezin da saldo prezioan eskuratu (*Mt 13, 44-52*). Jendeak altxortzat edo gauza baliotsutzat jotzen duen guztiari uko egitea eskatzen du. Erreinuaren aldean, gainerako guztia erlatiboa da. Giza gauza eta erakunde guztiek dute beren balioa, baina Erreinuarekin duten harremanetik datorkien balio erlatiboa. Giza gauzen eta errealitateen arriskua bere absolutizazioan dago, bihotza eta askatasuna lapurtzen dizkiguten idolo edo jainko txiki bihurtzeko arriskuan.

Mende askotan zehar kristau fedea izan da gure arbasoengandik jaso dugun altxor handia. Gaur egun fede hori gure kulturari baliorik ez duen errealitate zaharkitutzat ikusten dute askok. Beste balio batzuk jabetu dira eszena sozialaz, baina balio horiek ez dituzte

betetzen giza bihotzaren egarriak. Gaur egun beharrezkoa da bihotz otzan bat izatea, tradizioari entzuten dakiena eta jakinduria bat, beti benetako giza balioak deskubritzera eramango gaituena (*1 Erg 3, 5. 7-12*).

Bititzen ari garen krisia kristau bizitzaren krisia da, Elizak jendez gutxitzeaz gain kristau fedearen funtsa usteltzen ari dena. Kristautasunak gure garaikideen begietara duen balio-galera ez dator ebanjelioa bera debaluatzetik, baizik eta kristauok bizitzen ari garen modutik. Egoera hau gure kontzientziari egindako aldarria izan daiteke, esnatu eta konturatu gaitezen, Jainkoa maite dutenentzat, dena bere onerako gertatzen dela (*Erm 8, 28-30*). Eskatu dezagun eukaristiaren ospakizunak kristau fedearen altxor handia deskubritzeko indarra ematea.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska dezagun Espiritu Santuaren indarra, Berak lagun diezagun munduko beharren alde otoitz egiten.

- Eska diezaiogun errukizko Jainkoari, Kristo ezagutzen hasi eta bataioko grazia hartu nahi dutenen alde, beraien haurrak bataiatzeko prestatzen direnen gurasoen alde.
- Eska diezaiogun Jaunari gure herriaren alde eta bertan bizi garen guztion alde, baita munduko herri eta nazio guztien alde ere, bakea eta bizimodu hobea izan ditzagun.
- Eska diezaiogun Jaunari mundu zabalean pertsegituak diren kristauen alde eta beraien pertsegitzaileen alde, izan dezatela begirunearen bihotz-berria.
- Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde, fedean gorde gaitzan eta bere Semearen erreinuan bildu.

Jainko Jauna, Kristorengan agertu diguzu ezkutuan zegoen altxorra eta harri-bitxi preziatua; emaguzu Zure Espiritua, mundu honetan biziz Zure erreinuko aberastasun neurrigabeak maita ditzagun, eta prest egon gaitezen horiengatik dena uzteko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, zure esku zabaletik hartuta
ekarri dizkizugun eskaintzak;
egizu, misterio santu hauek,
zure graziaren indar eragileaz
santu egin dezatela oraingo gure bizitza
eta gida gaitzatela betiko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eukaristiako sakramentua hartu dugu, Jauna,
zure Semearen nekaldi-piztueren betiko oroigarri;
berak neurrigabeko maitasunez eman digun dohain hau
izan dakigula salbamenerako.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Uztailaren 31n
LOIOLAKO SAN IGNAZIO*

Agurra

Gugatik gizon egin zen Jesu Kristo gure Jaunaren errukia izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Senideok, poz ederra gaur eskaintzen zaiguna: gure senide eta herritar Ignazio Loiolakoa santutasun argitan ikusten dugu. Festaburu eder honetan, beraz, badugu zer eskatua eta zer eskertua. Jaunak eman digun dohaina, egiazko eskakizun bihurtzen baitzaigu. Ignazio dohaina dugu, eta deia dugu. San Ignazioren fede berean bat egin dezagun eta egun festa. Jaso dezagun festara Ignazio zaindaritzat aitortzen duen gure herriaren bihotza ere.

Damu-otoitza

Loiolako Ignazio bezala, gu ere Jainkoaren aintza eta gizakientzat ona izatera deituak gaude. Aitor dezagun isilune eginez, Jainkoarengandik askotan urruntzen garela, eta onar dezagun beragandik datorkigula salbamena.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

* *Ikus gaztelaniazko lagungarria 86. orrialdean*

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Oi Jainko, Loiolako Ignazio santua eman zenion Elizari zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko; egizu, hura lagun eta etsenplu dugula, lur honetan borroka eginik, irits dezagula garaipen-koraa harekin batean zeruan. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa maitatzeak zoriona dakar. Harengandik urruntzeak, berriz, zorigaitza eta hondamendia. San Ignaziok hartu zuen bidea argia da: dena, egiten den guztia, beti Jaunaren aintzarako egitea. Guretzat ere jokalege ederra!

Lehenengo irakurgaia (*Dt* 30, 15-20)

Deuteronomioa liburutik

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur nik ematen dizkizudan Jaunaren zeure Jainkoaren aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidean ibiliz eta haren agindu, lege eta erabakiak betez, biziko zara eta ugarituko eta bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabetzan hartzera zoazen lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta jainko arrotzen aurrean ahuspeztu eta haiek gurtzeko tentazioari amore ematen badiozu, gaur iragartzen dizut erabat hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordanez beste aldean jabetzan hartzera zoazen lurraldean.

Zeru-lurrak deitzen ditut gaur zure aurka testigu: bizia eta heriotza, bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut aurrean. Zuk eta zure ondorengoez bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren esana adituz eta hari lotuz. Horretan dago zure bizia eta hortik datorkizu Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindutako lurraldean luzaro bizitzeko ahalbidea».

Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

Bai do - ha - tsu gau ta e - gun Jau - na -
 ren le - ge - a haus - nar - tzen du - e - na.

- ✠. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona, ' bekatarien bidean ez **dabilena**, ezta lotsagabeen biltzarrean esertzen ere; baizik eta Jaunaren legean atsegin **duena**, haren legea gau eta egun hausnartzen **duena**. R̄.
- ✠. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzeko**koa** da: ematen du bere garaian **fruitua**, eta ez zaio historik **ihartzen**; egiten duen guztia ongi zaio **ateratzen**. R̄.

∇. Ez horrela gaiztoak, ez **hor**rela,
haizeak daraman galautsaren antzeko**ak** dira.
Jaunak zaintzen du zintzoen **bi**dea;
gaiztoena, berriz, galdu **eg**iten da. ℞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 31–11, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, bestea baizik, guztiak salba daitezten.

Izan zaitetze nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Aleluia (Mt 5, 12a)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

∇. Poztu zaitetze eta **al**aitu,
handia izango baita zuen saria **ze**ruetan. ℞.

Ebanjelioa (Lk 9, 18-26)

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek,

orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Ete esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia Nigatik galtzen duenak salbatu egingo du». Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?

Beraz, norbait Nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere aintzaz eta Aitaren eta aingeru santuen aintzaz beterik etorriko denean».

Homiliarako argibideak

Kristo oinarri izanik, denean Jainkoa zerbitzatu

San Ignazioren esperientzia osoa, Jesu Kristoganako maitasun pertsonalean errotua eta oinarritua dago. San Paulorekin batera esan zezakeen: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari, nire gain bere apostolu-zerbitzua uzteko fidagarri aurkitu naudelako eta zerbitzu hori betetzeko indarrak eman dizkidalako (*1 Tim 1, 12*). Jesu Kristo da Gogo-jardunen esperientzia serio probatu duenaren eragilea eta bizitzeko arrazoibidea. Kristorenganako maitasun sutsu hori bizitzea da oinarritzkoena. Gogo-jardunen funtsa Jesus hobeto ezagutzea da, hobeto maitatu ahal izateko eta gertutik jarraitu ahal izateko.

Jesus ezagutu, maitatu eta jarraitu: hiru urrats horiek dira mundu honek duen justizia, askatasun, maitasun eta adiskidetasun egarria ase dezakeen ur garbiaren iturria aurkitzeko bidea. Ezina eta era askotako mina nozitzen duen jendearen egarriak dira horiek. Eta Ignaziok Kristo askatzailea eta bizi-emailea, gertukoa eta maitasunez betea, askatzailea eta zorion emailea aurkezten digu. San Ignazioren Gogo-jardunek gure oinarrizko aukerak Kristo izan behar duela erakusten digu. Ongiaren eta gaizkiaren artean aukeratu behar dugu. Bizitza aukeratu behar dugu. Eta bizitza aukeratzea Jauna maitatzea, berari entzutea eta Hari jarraitzea da.

Zaila da Ignazioren espiritu-bizitza osoa hitz gutxitan laburtzea. Baina santuak berak aukeratu dena bildu dezaketen hitzak: zerbitzatu eta maitatu. Zerbitzatzea, gure izate osoa Jesu Kristoren jarraibidean jartzea da gauza guztien gainetik Jainkoa maitatzea. Zerbitzatzea etorri zen Kristori begiratzeak laguntzen digu gizatasunaren betea jarrera horretan aurkitzen.

Ezagutzen zuen Ignaziok, “handien munduan” interesagatik zerbitzatzen duen jendea eta Jainkoaren eta gizakien arteko harremana maitasunezko zerbitzu bezala aurkeztu nahi digu: maitasunez izan gara sortuak eta salbatuak, ez da maitasun handiagorik. Zer egin behar dugu Jainkoa zerbitzatzeko? Ez zaigu zerrenda bat ematen, baizik eta Jainkoa “gauza guztietan” zerbitzatzea proposatzen zaigu, era askotako zerbitzuetan gauzatu daiteke maitasunezko jarrera zabal hori. Beharrezkoa da Espirituaren indarra, une bakoitzean Jainkoak zertan zerbitza dezagun nahi duen ikusteko, sumatzeko.

Gurutziltzatu eta piztutako Jaunari dion maitasuna, Elizarekiko maitasunean egikaritzen da. Ignaziok badaki Eliza osatzen dutenak bekatariak direla, baina Kristok eralda dezakeen emazte bezala ikusten du. Ez da ametsetako elizaz mintzo, ezagutzen du

errealitatea, baina badaki Jaunak aurrera daramala Jesusen gizon egitearekin hasi zen salbamena, Espirituaren indarrez eta Pedro ezaugarritzat duen Elizaren baitan. Ignaziok badaki pertsonen bihotz-berritzea eta erakundearen eraldaketa beharrezkoa direla baina horrek ez dio galarazten Eliza maitatzea, arrazoi nagusi batengatik: Kristok ere Eliza maite duelako.

Guk ere eliza maitatzen ikas dezagun, ama bezala aurkezten digu: “Eliza ama santu” bezala. Eliza ama bezala maitatzen dugun neurrian dugu Jaunaren Espiritua. Elizarekin sentitzea, Eliza ezagutu eta maitatzea esan nahi du, ez gizakien ona bilatzen duelako bakarrik. Eliza maitatzea, bertan Jainkoaren maitasun-misterioa aurkitzea da.

Erreinuia, Eliza baino handiagoa da, noski. Baina guk Elizan aurkitzen dugu Jainkoaren Erreinuaren hazia eta ezaugarria. Bertan jaso dugu daukagun gauzarik handiena: Kristo. Eta bertan ikasten dugu denean maitatu eta zerbitzatuz bizitzen. Ignaziok bezala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Loiolako Ignazio santua otoitz lagun harturik, egin diezazkiogun eskariak Jainkoari, Jesusen izenean.

- Elizaren alde: ebanjelioaren argitan, edonon eta nonahi, gizakiaren ongia eta Jainkoaren aintzarik handiena bilatu dezan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Donostiako gure Elizbarrutiaren alde: san Ignazioren antzera, gure elizbarrutiko elkarteetan, beraien biziak Jainkoari eskainiz eta elizaren alde lan eginez biziko diren gazte eta gizon-emakumeak izan ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.

—Sinesgabe eta urrutiratu guztien alde: federik gabe edota Elizatik urrun bizi direnek, gure etsenplu eta Jainkoaren graziaz, Jesu Kristo salbatzaile bakartzat aitortuz, egiazko Fedea ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure parrokiaren alde eta hemen bildurik gaudenon alde: Loiolako Ignazio santuaren antzera, gauza guztietan Jainkoaren aintzarik handiena, Elizaren ona eta gure senideen zoriona bilatu ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure eskari apalak eta gida itzazu gure pausoak; Loiolako Ignazio santuaren antzera gogoz zerbitzatzen jakin dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna,
izan dakizkizula atsegin
Loiolako Ignazio santuaren ospakizun honetan
ekarri dizkizugun eskaintzak;
eta santutasun guztiaren iturri den sakramentu honek
egin gaitzala gu ere santu egian.
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

San Ignaziok irakatsitako bideari jarraitzera dei egiten baitiguzu,
uste oneko bihotz otzanez
Espirituaren ahotsa entzun dezagun;
gure bizitza Kristorenarekin bat egitera
eta, bertute guztien eredu denez,
beraren antzeko izatera bultzatzen gaituzu:
beraren bidez aukeratu gaituzu, Aita errukitsu horrek,
zure dohainei erantzunez
fedearen bidean aurrera egin dezagun,
itxaropenak sendo irauten lagun diezagun
eta maitasunak onbidean ibiltzeko indar gaitzan.

Horregatik, orain eta betieran
santu eta aingeru guztiekin batean
goraki abesten dizugu,
poz betean kantari:

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, Loiolako Ignazio santuaren jai honetan
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen-opariak
eraman gaitzala betieran zure handitasun aintzatsua gorestera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

31 de julio
SAN IGNACIO DE LOIOLA

Saludo

La misericordia de nuestro Señor Jesucristo, que se hizo hombre por nosotros, esté con todos vosotros.

Monición de entrada

Hermanos, una alegría preciosa la que hoy se nos ofrece: vemos a nuestro hermano y ciudadano Ignacio de Loiola en clara santidad. En esta hermosa solemnidad tenemos, pues, algo que pedir y algo que agradecer. El don que nos ha dado el Señor se nos convierte en verdadera exigencia. Tenemos el don de Ignacio, y tenemos la llamada a nuestro caminar. Unámonos en la misma fe de San Ignacio y hagamos fiesta. Agradecemos también hoy con corazón de pueblo que reconoce a Ignacio como patrón y protector.

Acto penitencial

Como Ignacio de Loiola, también nosotros somos llamados a buscar la gloria de Dios y el bien de los hermanos. Confesemos en un momento de silencio que a menudo nos alejamos de Dios, y aceptemos la salvación que nos viene de Él.

—Tú, el Primogénito de entre los muertos: Señor, ten piedad.

—Tú, el vencedor del pecado y de la muerte: Cristo, ten piedad.

—Tú, la resurrección y la vida: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna.

Oración colecta

Oh, Dios, que has suscitado en tu Iglesia
a san Ignacio de Loyola para propagar la mayor gloria de tu nombre;
concédenos que, combatiendo en la tierra
con su protección y su ejemplo,
merezamos ser coronados con él en el cielo.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.

Liturgia de la Palabra

Amar a Dios es fuente de felicidad. Alejarnos de Él nos lleva a ala desdicha y el abismo. El camino tomado por San Ignacio es claro: hacerlo todo, absolutamente todo, para gloria de Dios. ¡Una buena lección para nosotros!

Primera lectura (*Dt 30, 15-20*)

Lectura del libro del Deuteronomio

Moisés habló al pueblo, diciendo: «Mira: hoy pongo delante de ti la vida y el bien, la muerte y el mal. Pues yo te mando hoy amar al Señor, tu Dios, seguir sus caminos, observar sus preceptos, mandatos y decretos, y así vivirás y crecerás y el Señor, tu Dios, te bendecirá en la tierra donde vas a entrar para poseerla.

Pero, si tu corazón se aparta y no escuchas, si te dejas arrastrar y te postras ante otros dioses y les sirves, yo os declaro hoy que moriréis sin remedio; no duraréis mucho en la tierra adonde tú vas a entrar para tomarla en posesión una vez pasado el Jordán.

Hoy cito como testigos contra vosotros al cielo y a la tierra. Pongo delante de ti la vida y la muerte, la bendición y la maldición. Elige la

vida, para que viváis tú y tu descendencia, amando al Señor, tu Dios, escuchando su voz, adhiriéndote a él, pues él es tu vida y tus muchos años en la tierra que juró dar a tus padres, Abrahán, Isaac y Jacob».

Salmo Responsorial (*Sal* 1, 1-2. 3. 4 eta 6)

℟. Su gozo es la ley del Señor.

℣. Dichoso el hombre que no sigue el consejo de los impíos, ni entra por la senda de los pecadores, ni se sienta en la reunión de los cínicos; sino que su gozo es la ley del Señor. ℟.

℣. Será como un árbol plantado al borde de la acequia: da fruto en su sazón y no se marchitan sus hojas; y cuanto emprende tiene buen fin. ℟.

℣. No así los impíos, no así; serán paja que arrebatara el viento. Porque el Señor protege el camino de los justos, pero el camino de los impíos acaba mal. ℟.

Segunda lectura (*1 Cor* 10, 31–11, 1)

Lectura de la primera carta del apóstol san Pablo a los Corintios

Hermanos: Ya comáis, ya bebáis o hagáis lo que hagáis, hacedlo todo para gloria de Dios. No deis motivo de escándalo ni a judíos, ni a griegos, ni a la Iglesia de Dios; como yo, que procuro contentar en todo a todos, no buscando mi propia ventaja, sino la de la mayoría, para que se salven.

Sed imitadores míos como yo lo soy de Cristo.

Oración de los fieles

Hermanos: Por intercesión de san Ignacio de Loyola, dirijamos nuestras oraciones a Dios, en nombre de Jesús.

- Por la Iglesia: para que, a la luz del Evangelio, en toda circunstancia y lugar, busque el bien de la humanidad y la mayor gloria de Dios. Roguemos al Señor.
- Por nuestra diócesis de San Sebastián: para que en las comunidades cristianas de nuestra diócesis surjan jóvenes, hombres y mujeres que como san Ignacio trabajen y entreguen sus vidas a Dios y a la Iglesia. Roguemos al Señor.
- Por los que no creen: para que las personas que viven sin fe o alejadas de la Iglesia, descubran con nuestro ejemplo y la gracia de Dios la Fe verdadera, y reconozcan a Jesucristo como el único Salvador. Roguemos al Señor.
- Por nuestra parroquia y por todos los que estamos aquí reunidos: para que, a imagen de san Ignacio de Loiola, busquemos en todas las cosas la mayor gloria de Dios, el bien de la Iglesia, y el bienestar nuestros hermanos. Roguemos al Señor.

Escucha, Señor, nuestras humildes oraciones y guía nuestros pasos; para que, a imagen de san Ignacio de Loiola, sepamos servirte con valentía. Por Jesucristo nuestro Señor.

Oración sobre las ofrendas

Que te agraden, Señor Dios, las ofrendas que te presentamos en la solemnidad de san Ignacio de Loiola, concédenos que estos divinos misterios, que estableciste como fuente de toda santificación, nos santifiquen también en la verdad. Por Jesucristo, nuestro Señor.

Prefacio

En verdad es justo y necesario,
es nuestro deber y salvación
darte gracias siempre y en todo lugar,
Señor, Padre Santo, Dios todopoderoso y eterno.

Tú nos llamas a seguir el camino de san Ignacio,
para que, con corazón dócil y confiado,
escuchemos la voz del Espíritu;
y nos impulsas a conformar nuestra vida con la de Cristo e imitarle
como modelo de todas las virtudes:
por Él, Padre de misericordia, nos has elegido
para que respondiendo a tus dones,
recorramos el camino de la fe,
seamos sostenidos con la ayuda de la esperanza,
y edificados con la fuerza de la caridad.

Por eso, ahora y por toda la eternidad,
unidos al coro de los ángeles,
te cantamos con devoción,
y te aclamamos diciendo:

Oración después de la comunión

Señor, que el sacrificio de alabanza
que te hemos ofrecido para darte gracias,
en honor de san Ignacio de Loiola,
nos conduzca a la eterna glorificación de tu majestad.
Por Jesucristo, nuestro Señor

